

A scenic view of a village with red-tiled roofs and a wooden bridge over a river. The village is built on a hillside, and the bridge is made of wood and has a white railing. The water in the river is brown and turbulent. The sky is blue with some clouds.

uk

254. zenbakia / 2014ko ekainaren 24a

URTEAN 20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki

Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri

Urte osoan eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean

Urte osoan argazki zahar eta barriak

Urte osoan zure proiektuak lau haizetara

Urtean 20 euro

uk

www.ukaldizkaria.biz

neuk ere gura dot

Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

UK 94 491 13 37

UK uk@aldizkaria.biz

BIDAIA AHAZTEZINAK EZDINERO

EROSI RENAULT BAT ETA IRABAZI GURE BIDAIA AHAZTEZINETAKO BAT*

SCENIC

MEGANE

LAGUNA

RENAULT LIMITED GAMA 11.900€-TIK AURRERA**

ETA 5.000€ EKIPAMENDUAN BARNE

ATZEKO HURBILTASUN-RADARRA – ALEAZIOZKO HAGUNAK – BI-ZONA KLIMATIZAGAILU AUTOMATIKOA

ARRISKU OROTAKO ASEGURUA DOAN URTE 1EZ – MANTENIMENDUA DOAN 2 URTEZ eta askoz gehiago...

DRIVE THE CHANGE

RENAULT

Renault Limited Gama: kontsumo mistoa (l/100km) 3,5 eta 7,5 bitartean. CO2-aren isuria (g/km) 90 eta 173 bitartean.

*Promozio hau 2014ko ekainaren 1etik 30era bitartean egindako eskaintza da baliagarria, Espainian egotilar diron pertsona fisikoek Renault gamako ibilgailu berri bat erosi gero promozioa aplikatzeko Renault Sareko salmenta-puntu bati. Kontuitatu einartek hemen: <http://www.renault.es/describe-renault/baseslegales/>. **Eskaintza eta PSP gomendatua Peninsularrako eta Balearretarako da. M4gane Berlina Limited Energy-renizal Tce 85 kW (115 ZP) S&S modeluan. Barne daude BE2A, matxukatu-zerga, garraio-zerga, REC2A eskaintako promozioak eta PWE-5 planaren balioak den deskontua. Partikular eta autonomoenzat da, beldere PWE-5 Plana zeneran baldintzak bete gero (RD 357/2014) eta finantzazioa Multistimeno bidez eginez gero RCI Banque SA Suciuzal en Espaiia-rekin. Finantzazioa beharreko gubemeko epaia: 6.000€ 600€-ko finantzazioan amakio ordainko auzgura tehen urtean, MAPPErekin. Opari diren apabufako mantenimendua 2 urteko dira gehienez ere, 2 urte eta 30.000 km egin arte (lehenengo gertatzen dena). Renault Kolore salia. Auzguria eta mantenimendua REC-S&Sren opari dira. Ez da baliagarria beste finantzio-eskaintza batzuekin. Eskaintza hau 2014-06-01 eta 2014-06-30era bitartean egindako eskaintza da. Injekzio modeloa: M4gane Berlina Limited Energy Tce 85 kW (115 ZP) S&S pintura metalizatuarekin, Solene Limited Energy Tce 85 kW (115 ZP) pintura metalizatuarekin eta Laguna Berlina Limited dCi 81 kW (110 ZP) 602 pintura metalizatuarekin, PSP gomendatua sarbata daude promozioak eta PWE-5 Planaren balioak den deskontua: 12.320€, 15.500€ eta 18.900€ hurrenez hurren.

Renault

generation elf

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com

LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL. 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Martikoen 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberoka Iturburu, Julien Nafarrate, Iker Rincon, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Amando Llamasas, K.Olete, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Laurita Siles
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Getxo

UDALA - AYUNTAMIENTO

Euskara zerbitzua

Leioa

UDALA - AYUNTAMIENTO

Euskara Zerbitzua

BERNIZKO

UDALA

Erandioko Udala

Sopelako Udala

Urdulizko Udala

Plentziako Udala

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, KULTURAZA POLITIKA ETA ELIZTUTZA SAILA
Fakultate 1 de Euskara, Garbieta Garbieta
DEPARTAMENTO DE EDUCACION, POLITICA, INDUSTRIA Y CULTURA
Ministerio de Educacion, Industria y Cultura

BFA DFB

Bizkaiko Foru Aklundia

Diputacion Foral de Bizkaia

Kulturako Saila

Departamento de Cultura

Non zer

- 4. PLAZA. Arrate Illaro / Maitane Nerekan (Getxoko EHBildu)
- 5. IRUDIA. Antisorgailurik saltzen ez duten botiken kontrako kanpaina
- 6. FACEGUK. Nerabeen alkohol-kontsumoa gehiegizkoa da?
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Igeretxe (Getxo), 30. hamarkada
- 8. URIBITAKORA. Nahikari Ayo
- 9. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 10. MUNDUKATUAK. Hegoi Uriarte Iza.
- 11. ERRETRATUA. Olaia Mitxelena Elorriaga.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
- 25. AGENDA.

SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Mari eta Sirenoa-ren ezkontza.
- 28. ARGAZKIA. Gorlizko hondartzako harea-txondorrak.
- 30. BERBETAN. Nuria Picas i Albets.
- 34. FOTOGRAFIA. Victoria Bengoa.
- 40. SAKONEAN. Mandañuko aztamatagia (Gorliz).

KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Mikrofilm (Plentzia) eta Gaurik Laburrena (Getxo).
- 43. MUSIKA. EH-Z festibala.
- 44. LIBURUAK. Walter Benjamin itzultzeko diru-bilketa.
- 45. KIROLAK. Eskualdeko bidezidor-berreskuratzea; Mendibike elkarte.
- 46. ZIENTZIA. Arrautza ala oiloa? (I)
- 47. EUSKARAetaERAKUNDEAK. Euskara sustatzea eskualdean.

AMAITZEKO

- 49. PINTXOTAN. Bakailaoa pil-pil eran pintxo.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Laurita Siles.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Udondoko briska-txapelketa, 1989 inguru.
- 54. AITORMENAK. Sandra Barea Elordui.

Azala: Victoria Bengoa

www.ukaldizkaria.biz

30 Nuria Picas i Albets

Berbetan

Korrikalari katalanak eskualdean egiten den Kosta Trail lasterketa irabazi du; beragaz berba egin dugu.

11 Olaia Mitxelena Elorriaga

54 Sandra Barea Elordui

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
Kalea/zenb..... Herria.....
e-mail.....
Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro
☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

UK 3

Leihatila
> Arrate Illaro

Guztion azoka

Durangoko Azokako hainbat eragile Eusko Legebiltzarrean elkartu gara ekainean, Kultura Batzordeari eskari bat egiteko: Jaurilaritzak azokari finantziazio handiagoa eta egonkorragoa ematea.

Izan ere, Azokaren egoera ekonomikoa larria da, emergentziakoa. Euskal kulturen zein Europa mailan erreferente da, baina gaur egungo baldintza ekonomikoekin ezin da gutxieneko kalitaterik bermatu. Are gutxiago, berrikuntza eta garai berrietara egokitu.

Kulturgintzarentzat arnasmuna da Azoka, sortzaileei urte osoan lanean jarraitzeko hauspoa ematen die. Gainera, inpaktu ekonomiko handia dauka, 4.000.000€ ingurukoa (kulturen eta ostalaritzan).

Beraz, Durangoko Azoka babestea ez da urtean lau eguneko ekimena sustatzea; euskal kulturari urte osorako bultzada ematea da. Ehunka sortzaile eta 100.000 herritar biltzen dituen azokak eragin handia du, kulturala, soziala zein ekonomikoa, eta neurriko laguntza dagokio instituzioetatik.

gu geu

Udarako prestatzen

Eguzki amandreak ku-ku luzetxoagoak egiten dizkigula emoten du, eta apurtxo batez bada ere, sinetsi dugu uda gurean dela!

Horrenbestez eta horretarako, burua eta gorputza prestatu beharko, ezta?

Burua, betiko legez, oporraldira doakigu... ka, kar, kar!

Gorputza... bai, hori ere, prestatzea garrantzi handikoa da! Aukera bi: batetik, kirolarien eta kirolzaileen berbakaz bete dugu UK hau, horiek eskainitako aholkuak eta adibideak kontuan hartzekoak dira; bestetik, uda eta jaiak eskutik lotuta etorri ohi direnez, dantzarako hainbat aukera izango dizue eskualdeko herriko festetan, horien egitarauak zenbaki honetako zenbait orritan...

Dena prest?

Iritzia

Getxoko EH Bilduko bozeramaileak turismoaren onurez harago doan irakurketa helarazi digu:

Gurutzaontzien gezur-rekin nazkatuta!

Badirudi modan jarri dela gurutzaontzi-turismoa. Azken hilotan medioetan eman dioten “bonboa” ikustea besterik ez dago: Euskadirako atea garena, munduko handienak datozela... Maiatzaren 28an gurutzaontzi kai berria inauguratu zuten Getxoko Kirol Portuan. Bizkaiko ahalak eta EAJko beste zenbait ordezkari argazkiak ateratzeko aprobeztatu zuten. Getxoko PPko Arrue anderea gonbidapenik gabe

«**Ez da egia aberastasun ekonomikoa ekartzen diotenik Getxori**»

bertaratu zen, argazkian merezi zuen lekua aldarrikatzera. Edozer argazkian egoteagatik!

Bildukook ez genuen inolako interesik, baieztapen faltsuetan oinarritutako argazki horretan parte hartzeko. Nazkatuta gaude Getxoko Udalak, EAJren gidaritzapean, PP, PSE eta kai hau egiten parte hartu duten erakunde guztiekin batera, “ustezko gurutzaontzi-turismo aberasgarriaz” egiten ari diren distrakzio-estrategia.

Ez dugu munduko gurutzaontzi erraldioen sarrera atea izan nahi, etxebizitza eskubidea bermatuta ez duten gazteen, lokalak itxi behar dituzten merkatarien eta galtzen

den herri-ondarearen irteera nagusia garen bitartean.

Itsasora porlan gehiago botatzea suposatu duen proiektu honen sustatzaileek, kontsumo parametrotan neurtzen dute aberastasuna: gurutzaontzi handiak datoz = milaka turista datoz = kontsumo handiagoa. Pertsonak eurotan baloratzen dituen logika kapitalista horrek gezurra du oinarri: ez da egia gurutzaontziek aberastasun ekonomikoa ekartzen diotenik Getxori. Itsasontzitik jaitsi eta autobusean Guggenheimera doazen bidaiariek, ez diote ekarpenik egiten herri honi; pakete turistiko bereziak eskainita ere, ezer gutxi emango diote, gurutzaontzi-turismoa aldezturitik bideratutakoa baita. Kontrara 21 milioi euro xahutu dira kaian, alokairuzko etxebizitza sozialetan, La Galeako Fortea edo Punta Begoñako galeriak konpontzen edo herriko merkataria eta ostalariak laguntzeko erabili ez diren 21 milioi euro. Eta horrekin batera, kutsadura gehiago kantauri itsasora, trafiko handiagoa herrira...

Kontziente gara gure herriak bertoko zein kanpokoentzat dituen dohain turistikoek; harrotzen gaituzten labar, hondartza, paisaia, kultura herrikoia eta auzoak ditugu. Goazen bada horietan inbertitzera, getxoztarrentzat herri bizigarriagoa egiteaz batera, bisitan datozenek goza dezaten. Babes dezagun itsasoa (Dragarik ez!), zain ditzagun hondartzak, babes ditzagun natur guneak (Andra Mari, Bolue, Larrañazubi...), baloreen jar dezagun herri-ondarea (Portu Zaharra, Malakateak...), susta ditzagun jai herrikoiak eta auzobizitza... Turismoak ekarpen interesgarria egin diezaioke herri honi, herri-ekonomia sustatzeko tresnaz gain, hartu-eman eta errespetu kultural eta sozialaren parametroetan ulertzen badugu.

Maitane Nerekan Uman
(EH Bildu Getxoko bozeramailea)

[irudia]



ALGORTIA, EKAINAREN 12A

“Gure gorputza, gure erabakia” / Ekainaren 12an, Illera kaleko (Algortia) farmaziara hurbildu ziren Bilgune Feministako kideak biharamuneko pilula eskatzera, baina ez zieten emon. Antza, amaitu egin zitzaizkien. Bilgune Feministak salatu zuen hainbat farmaziatan ez dute saldu gura, ez antisorgailurik, ez biharamuneko pilularik (azken horiek, adibidez, Algortako farmazian), eta salaketa-kanpaina abiatu du. “*Gure gorputza, gure erabakia*” aldarrikatzen dute emakumeek, antzeko ekimenak egin dituzte azken aldian eta, datozen hilotarako ere, ekintza gehiago iragarri dituzte. ○ / Argazkia: Asier Mentea

Auzokideen iritzia jakin gura duzu?
Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera
umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak...
Idatzi galdera **gure facebook**-en
eta zeure partez luzatuko dugu!

Nerabeek alkohol gehiegi kontsumitzen dutela uste duzu?



o Algorta

Asier Zamorano

> ikaslea

Gazteek lotsa galtzeko tresna bezala erabiltzen dute alkohola. Jaietara doazen lehenengo aldietan gehiegikeriak e-giten dira, eta harremanak egiterako orduan ere alkoholaz baliatzen direla uste dut. Horrez gain, gizartearen egoerak ere eragin handia du.



o Algorta

Asier Ormaza

> historialaria

Denok bizi izan ditugu esperientziak gaztetan, izan ere, gure garaian 13 edo 14 urterekin hartzen genituen lehenengo mozkorrak. Euskaldunon kulturean ondo ikusia dago edatea, mozkortzea edota alkoholarekin jolastea; baina birplanteatu beharko genuke alkoholaren erabilera, tontokeriak egin ez daitezen.



o Algorta

Ane Olabarrieta

> ikaslea

Egia da gaur egun 14 urteko neska-mutilak ikus daitezkeela kalean botata, eta ez da irudi oso ona. Hala ere, haiek ondo pasatzen badute, haiek bilatu behar dute ondo pasatzeko modua.



o Algorta

Santi Goitia

> tabernaria

Nerabeek egiten dutena alkoholarekin denok egin izan dugu. Askotan pentsatzen dugu gurasoen ardura dela nerabeek egiten dutena kontrolatzea, baina horiek oso zorrotzak direnean normalean ez dute lortzen nahi dutena. Hori dela eta, uste dut kuadrillek eraman behar dutela kontrola.



o Algorta

Iñaki Vega

> ekonomialaria

Arazoa betikoa da, baina gaur egun areagotu egin da. Horri aurre egiteko kuadrillek garrantzi handia dute, baina telebista ere inportantea da, beti jai eta drogak aurkezten dituztelako aisialdi moduan. Eredu hori arrakastatsua dela uste dute nerabeek, gauza kulturala da, eta eredu horiek kopiatzen saiatzen dira.



o Algorta

Ana Bilbao

> tabernaria

Nire belaunaldian ere oso gaztetan edaten genuen, baina ez hainbeste kantidad. Gaur eguneko arazoa txokoak direla uste dut. Izan ere, leku horietan gazte ugari elkartzen dira, eta biltzeko eta elkarrekin egoteko gunea izateaz gainera, denetarik egiten hasten dira, taldearen presiopean.



GETXO UDAL LIBURUTEGIA



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / IGERETXE, 30. HAMARKADA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > gozatzeko sasoia



Arrigunaga, 2013ko ekainaren 23a

Testua: **Nahikari Ayo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Espainian behera

Suaren inguruan hor Arrigunaga kurtsoa amaituta ongi etorri udara. Une txarrak ahaztea beharrezkoa da, gozatzeko garaia heldu zaigu jada, ikasturtea ahazteko liburuak sutara!

San Juan bezperan dugu jomuga Leioa, ondo pasatzea da dugun arrazoia. Han dagoen giroak jo dezake goia. Orain bihur zaitezke gaupasen morroia, ofizialki hasi da parranden sasoia.

Negua izan daiteke gogorra ta latza, ta kalean giroa nahikoa eskasa. "Lorentzok" zein hondartzak emanez arnasa, giro onari hartu al diozu traza? Gozatu urtaroa uda ondo pasa!

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

lehiaketa > kmovie



Lanak bidaltzeko azken eguna: irailak 1

Ikus-entzunezko lehiaketa da Kmovie: gehienez minutu biko bideoa egin behar dute parte-hartzaileek, eta horretan azaldu beharko dute euskara zelan bizi duten Bizkaian. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Azkue Fundazioak elkarlanean antolatzen duten lehiaketan bakarka zein taldean izena emon daiteke, eta 18-30 urte bitartekoiei begirakoa da. Antolatzailerik adierazi legez, *“gizartea, etxea, landa, hiria, tekno-*

logia, eskola, gune guztietan euskararen erabilera ezagutzera eman gura duen ekimena da, seguru gaudelako euskaraz komunikatzea, adieraztea eta bizitzea, zilegi ez ezik, errealitatea dela, eta horixe da lehiaketa honen bidez mundu osoari erakutsi nahi dioguna”. Sariei dagokienez, hauek dira: lehengoa 6.000 euro, bigarrena 4.000 euro eta hirugarrena 2.000 euro. ○

Info+: k.bizkaia.net/kmovie


ikastaroak > Udako Unibertsitate Bolibartarra

Bolivartiar Ikaskuntza Elkartek hainbat berbaldi-ikastaro antolatu ditu, uztailaren 7tik 11ra, Ziortza-Bolibarren. Hala, Udako Unibertsitate Bolibartarraren egitaraua hauxe da: Garapen jasagarria izango dute berbagai uztailaren 7an Munitibarko EKO OIZ elkarteko Joseba Zabalak eta Ane Aspiazuk; “Ekonomia feministaren apustua bizitza duinaren alde” gaia jorratuko du uztailaren 9an Yolanda Jubeto

irakasleak; “Ideas para una sociedad necesitada” (Gizarte behardun batentzako ideia) berbaldia eskainiko du uztailaren 10ean Koldo Saratzagak; eta azken egunean, hilak 11, Lurraren oroimenaz jardungo du Toti Martinez de Lezeak, ostean History Share-ren *70.000 urrezko txanpon* antzerki-historiko egongo da. Emanaldi denak 16:00etatik 18:00ak arte izango dira, eta izen-emoteak 5 euro balio du. ○



Info+: bolibar.org



Info+: www.mintzola.com / 943 69 38 70

jardunaldiak > aho bete hots

Mintzola Fundazioak Ahoa Bete Hots jardunaldien bosgarren ekitaldia prest dauka dagoeneko. *Esan berriz, esan* leloa daroa aurtengoak eta uztailaren 2tik 4ra izango da Amasa-Villabonan (Gipuzkoa). Oraingo honetan landuko duten gaia transmisioa izango da: *“antzerki, bertsolaritza, kantagintza eta ipuingintzaren transmisioa”*, hain zuzen ere. Horretarako, Mikel Markez, Amaia Zubiria, Maika Etxe-

kopar, Joseba Tapia, Jon Sarasua, Antton Luku, Xabier Amuriza, Antton Irusta eta Miren Amuriza aritu eta adituak gonbidatu dituzte. Hala, *“ahozkotasunaren zein ahozko generoen transmisioan interesa duen orori”* begirako jardunaldiak dira. Parte hartzeko asmoa duenak ekainaren 25a baino lehen emon beharko du izena. Matrikula arruntak 70 euro balio du; ikasle, langabetu eta erretiratuentzat 40 euro. ○

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa

...harria

...lehengo garaiak...


...itsasoa

www.saiaszgetaria.com / info@saiaszgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Hegoi Uriarte Iza > Hegoafrika

“Nabaria da beltzen eta zurien arteko aldea”

Hegoi Uriarte Iza berangoztarra orain dela sei hilabete joan zen Hegoafrikara, urte bi igarotzeko: neska-laguna bertara bidali zuten lanera, eta alkarregaz joatea erabaki zuten. Esperientzia barria izango zelakoan joan eta horretan dabilta: ikasteko daudenak ikasten ahalegintzen, herrialdeak historia sakona dauka-eta. Uriartek orain dela gitxi lortu du lanpostua: laster hasiko da elektrikari eguzki-energia biltzeko lantegi batean. Orain dela aste batzuk bisitan etorri zen eta aukera baliatu genuen Hegoafrikaren gaineko kontuetaz berba egiteko.



Zer bisitatu eta zer ez galdu

Hegoafrikan, egia esan, gauza dexe-nte bisita daiteke. Batetik, naturak eskainita-koak: paisaiak, animaliak eta abar; ospe-tsuenak dira, beharbada, Kruger eta Kala-hari parke naturalak. Bestetik, hainbeste urtetan pairatu duten egoera politiko-so-zialaren inguruan dauden museoak edo ibilbideak. Euskal Herrian moduan, jen-de mordoa espetxeratu zuten herri bezala euren eskubideak errespetatzea defendat-zeagatik. Horren harira, Robben Island bisita daiteke: Nelson Mandelak bere he-rria (*Hegoafrika beltza*) defendatzeagatik urte asko eta asko egin zuen bertan preso. Historia azaltzen dute egoera hura pairatu zuten pertsonak.


Harritzeko modukoa

Hasiera batean, harritu ninduen gu bizi garen lekuan beltzen eta zurien arte-an gaur egun ere dagoen desberdintasu-

nak. Bertara joaterakoan pentsatzen nuen Apartheidaren bukaeragaz auzi hori gain-dituta zegoela baina, gaur egun, oraindi-no oso nabaria da batzuen eta besteen arteko desberdintasuna, bai ekonomiko-ki, bai sozialki. Hegoafrika polita da bai-na, hasieran, asko harritu ninduen hain horia izateak eta hain siku egoteak. Pen-tsa, Euskal Herria atzean utzi, dana ber-dea, eta bertan lurreratu klima erabat des-berdina daukan herrian... Hala ere, Eus-kal Herriitik kanpora gero eta denbora gehiago igaro, orduan eta gehiago suma-tzen da etxearen eta etxekoen falta.

Zer jan... eta edan

Gu dauden tokian hanburesak eta pizzak besterik ez daude jatetxeetan. Ha-lere, ostruka eta *springbook*-en (gazela) okela ere jaten da. Espezia asko erabiltzen dute, baina kostaldean itsaskia eta arrain oso ona jan daiteke, eta merke! o



Nor da

Nongoa
Berangokoa

Adina
24 urte

Zertan dabil
Bikotekidea lanera bidali zuten hara eta alkarregaz joan ziren; oraintsu lortu du berak lana

Lanbidea
Elektrikaria

Noiz arte
Orain dela sei hilabete joan zen Hegoafrikara eta beste urte eta erdi lotzeko asmoa dauka

Non dago

Lurraldea
Hegoafrikako Errepublika

Azalera
1.219.912 kilometro koadro

Hiriburuak
Pretoria (administratiboa). Bloemfontein (judiziala) eta Lurmutur Hiria (legislatiboa)

Biztanleria
50,5 milioi inguru

Hizkuntza
11 hizkuntza ofizial daude: zuluera, xhosea, afrikaans, pedia, ingelesa, tswana, sothoera, tsongera, swaziera, ndebelera, vendera. Eta beste mintzaira batzuk ere badaude

Dirua
Rand



“Gure helburua herriko jendeak jaietan parte hartu eta gozatzea da”

Olaia Mitxelena Elorriaga > Barrikako Jai Batzordea

Hasi da udako jaien denboraldia! Hurrengo asteetan han eta hemen izango ditugu txosnak, herri-bazkariak, erromeriak... Barrikan egunotan ospatu dituzte *sanjuanak*, eta aurtten, Jai Batzordeak esfortzu berezia egin du jai herrikoiak lortzeko. Hala aitortu digu Olaia Mitxelena Jai Batzordeko presidenteak: “*Gure helburua herriko jendeak jaietan parte hartzea eta gozatzea da*”. Orain urte bi sortu zen jai batzordea erronka horregaz, eta apurka-apurka lortzen dabilta: “*Lan asko egin behar dugu oraindino, baina norabide egokian goaz*”. Jai txikiak diren arren, egitarau potoloa prestatu dute Barrikan: “*Lehen, inguruko herrietako jendea etortzen zen jaietara, eta hori azken urteotan galdu da. Ea berreskuratzerik dugun!*”. Hori dela eta, kontzertu “potenteak” antolatu dituzte: Txapelpunk, Emon... Baina jai txikietan legez, betiko jarduerak dira jaietako protagonista nagusiak: “*Lehen egiten zen tortilla txapelketa antolatu dugu berrir. Eta lehen aldiz zaldi eta pottoken ibilbidea, bertso-saioa Kasero Egunean... Baina ekimenik arrakastatsuen San Juan gaua da*”. Pregoia ere berreskuratu du Jai Batzordeak, eta herriko elkarte batek jaurti du: “*Emakumeen Hitzak elkarteak bota du, jaietan genero ikuspegiari eta parekidetasunari garrantzia eman gura diogulako*”. o Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

HAPN, erakusketak eta ezkontzak

Uztailaren 3ra arte proiektua **ikus daiteke** Herritarren Arretarako Bulegoetan, **eta ekarpenak** egin. Bestalde, horren inguruko **mugimendua sortu gura** dute **Sirenoaren** ezkontzako **sustatzaileek**

HAPN-ren berrikuste prozesuan orain arte egindako lanak erakusten ari da Udala, herritarrek **“egokitzen jotzen dituzten ideia, alternatiba edo iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten”**. Erakusketak uztailaren 3ra arte ikus daitezke HABetan. Bestalde, gaiaren inguruan mugimendua sortzeko deia egin dute Sirenoaren ezkontzan.

Getxoko Hiri-Antolamendurako Plan Orokorra berrikusteko Lan-taldeak, Udala Hiri-Planeamenduko Aholkularitza Batzordeak eta Tokiko Ingurumen Foroak egindako lanak bildu dituzte, eta uztailaren 3ra arte erakutsiko dituzte Herriarrantzako Arreta Bulegoetan (Torrene eta Mesedetako kaleetan eta Andra Mariko kiroldegian). HAPN idatzi aurreko faseetan egindako lana: alde aurreko ikerketak eta aurrekinaren atarikoak.

Erakusketagaz herritarrei erakutsi gura diete proiektua: *“Helburua da hasieratik informatzea eta herritarren parte hartzeko eskubidea bermatzea; edozelako udal-erabakirik hartu aurretik egokitzen jotzen dituzten ideia, alternatiba edo iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten”*, Imanol Landa alkateak dioenez.

2013ko udabarrian lanean hasi zen berrikusketarako Lan-taldea eta urtarilerara arte jarraituko dute. Presentziazko sei saio egin dituzte eta Interneten zenbait foro; 50 lagunek parte hartu dute, batez beste. Eztabaidatik bi ondorio nabarmendu ditu udalak: batetik, alokairuko babestutako



Erakusketetako bat, Torrene kaleko bulegoan

etxebizitzaren beharra; bestetik, nekazari-tza eremuetan ahalik eta leku gitxien okupatzea. Aukeren artean eztabaidatu dute: jada eraikitako eraikin-parkeagaz eskaintza zabaltzea, alokairua sustatzea, hutsik dauden etxebizitzak merkatura ateratzea,

“Udalak erabakirik hartu aurretik herritarrek ideia, alternatiba eta iradokizunak egin ditzakete”

etxebizitza handiak zatitzea, merkatale-txabeak eraldatzea guene jakin batzuk babestuta, eraikinak birgaitzea, teilatupeak etxebizitza gisa araupetzea gutxieneko batzuk beteta, e.a.

Hain zuzen ere, *“guztion artean zein Getxo mota gura dugun pentsatzeko, eta kalea eztabaida honen inguruan aktibatze-*

ko” ekitaldia burutu zen ekainaren 6an: Portu Zaharreko Sirenoaren eta Andra Mariren arteko ezkontza. Ekimenaren partaideek salatu zuten, *“garapenak gazteentzako etxebizitza sortzea posible egiten duelako aitzakiaren kontra, etxebizitzaren prezioak eta finantzazio ezintasunak gazteentzako eskubidea galarazten dute”*.

Ezkontzaren sustatzaileek diotenez, udaleko Lan-taldeko partaideen *“gehien-goak ohartarazten eta salatzen du Getxoko egoera kritikoa garapen basatiaren emaitza dela eta gainbalioak lortzeko helburua daukala”*. Horregatik, mugimendua sortuko dute Planaren eztabaida kaleratzeko: *“Espekulazio basapiztietatik salbu dagoen Getxo aldarrikatzeko parte hartu gura dutenak bildu”* gura dituzte. ○

Info+: www.getxo.net

Kultura herritarren eskura ipini gura du Kultura Planak, partaidetza erraztuz



Villamonteko kultur etxea, Algortan

Kultur Etxeak elkarte eta kultura-enpresen sarearekiko elkarlana sustatuko du, *“kulturararen balio-katearen hiru alderdien arteko oreka bilatuz: prestakuntza, sorkuntza eta erakusketa”*. Izan ere, udalak politika kulturalaren funtzionamendurako eredu estrategiko barriaren ondorioak aurkeztu ditu.

Plan barriak herriko taldeen eta eragileen parte hartzea izan duela azaldu dute: 2012an hasi zuten analisia, diagnostikoa eta eztabaida. Ondorioz, Kultur Etxearen funtzionamenduaren eredu estrategiko barria ezarri dute, *“kulturar udalerriaren garapen ekonomiko eta sozialean daukan eragina ahaztu gabe”*.

Ildo horretan, Kultur Etxeak gaur egun garatzen dituen jarduerak batzuk beraztertuko dituzte, sorkuntza eta erakus-

keta formatu barriak lantzeagaz batera.

Izan ere, Plan barriaren helburuetako bat da *“herritar guztiei zerbitzua eskaintzea”* baina, oraingoan, sormena duten pertsonak identifikatzeko lanean sakondu gura dute, beraien gaitasunak garatzen lagundu asmoz. *“Getxoko kulturaren motorraren eragiletako bat gu geu gara, baina ondo dakigu ez garelako enagile bakarrak, eta aurrerapauso bat eman gura dugu, elkarlana sustatuz; guztiontzat aberasgarri izan daitekeen aurrerapausoa”*, esan du Koldo Iturbe Kultur zinegotziak.

Bestalde, gogoratzea Romoko Kultur Etxea eraikitzeko 2A faseko lanak abiatu dituztela: fatxada, teilatu, arotzeria eta instalazio-lanak. Esleipenaren arabera, 60 aste epea dago lanok burutzeko eta ia 5,5 milioi euroko aurrekontua daukate. ○

KIROL-KANPUS AUKERA ZABALA UDAN

Getxoko klubek 15 kirol-campus eskainiko dituzte udan umeentzat eta gazteentzat, ondoko modalitateetan: gimnasia erritmikoa, skate-a, saskibaloia, igeriketa, tenisa, futbola, irristaketa, boleibola, errugbia, surfa eta bela. Gainera, dibertsitate funtzionalaren esparruan Amesten zerbitzua eskainiko dute barriro: xedea da kirolaren arloan integratzea teknologia barriak erabiliz. Horrenbestez, campusetako partaideek trebetasun motorrak hobetzen dituzten errealitate handituko sistema erabili ahaliko dute (izena emateko: 660 302 536 edo amesten14@gmail.com). Bestalde, Txikiguneak udako zerbitzua eskainiko du irailaren 5era arte, 2 eta 12 urte arteko umeentzat (izen-emoteak: 946 016 092 eta txikigune@gmail.com).

Info+: www.getxo.net

FADURAKO UDAKO IGERILEKUAK ZABALIK

Irailaren 14ra arte Fadura kiroldegiko kanpoko igerilekuek ohiko ordutegia aldatuko dute, udako denboraldikoa hartuko dute-eta. Igerileku olinpikoa egunero erabil daiteke 08:00etatik 21:30era eta, kanpoko gainerako guneak –berdeguneak, zabuak eta umeen igerilekuak–, 10:00etatik 21:30 arte. Erabiltzaileek kafetegi-zerbitzua ere eskura izango dute: aste barruan, 12:00etatik 20:00etara; eta aste akabuetan eta jaiegunetan, 11:00etatik 20:30era.

Info+: www.getxo.net

HITZARMENA UDALA ETA BIZIGUNEREN ARTEAN

Bizigune programaren bitartez Getxon hutsik dauden etxebizitzaren alokairua sustatzeko lankidetzaren hitzarmena sinatu dute udalak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Alokabidek. Alokabidek ezarriko ditu dirukopuruak, bai etxebizitzaren jabeak errentagatik jaso beharrekoak, bai errentariak ordaindu beharrekoak.

Info+: www.alokabide.euskadi.net

Inprimatu zure posterra airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin

Pilo bat daukazu aukeratzeko



www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitetz zure eskaera egiteko

9,32€

-tik hasita BEZ barne



Maider Santxo eta Sara Diez > hondartza-boleibol Euskadiko txapeldunak

“Gure ametsa da Joko Olinpikoetan jokatzea, asko entrenatu beharko dugu”



Santxo eta Diez Aixerrota ikastetxean

Aixerrota taldeko eta ikastetxeko Maider Santxo Sotok eta Sara Diez Barriosek irabazi dute hondartza-boleibol Euskadiko txapelketa. DBHko bigarren maila amaitu barri dute, eta boleibolean erabat murgilduta dabilta: pistan eta hondartzan jokatzeko dute. Oraingoan binakakoetan irabazi dute, baina normalean taldeka jokatzeko dute. Taldea Espainiako txapeldunorde lotu da orain aste batzuk Castellonen eta udako egutegia beteta daukate txapelketakaz. Sasoitsu eta gogotsu daude getxoztarrak, boleibolean mailarik gorenera iristeko prest.

—Zorionak bikote! Kontatuko diguzue zer boleibol mota praktikatzeko duzuen?
—Normalean pistan jokatzeko dugu, neguan eta ikasturtean zehar. Orain hasiko gara hondartzan ere entrenatzen, uda dator-eta. Espainiako txapelketa jokatu genuen eta Euskadikoan irabazi dugu, 17 urtetik beherako mailan; binakakoetan lehenengoz jokatu dugu elkarregaz. Orain arte umeen mailan jokatu dugu, baina datorren urtean kadete izango gara. Oso pozik gaude, ez genuen irabazterik espero, ez guk, ez besteek; sorpresa izan

zen. Lehen partidak nahiko errazak izan ziren, baina finalerdietan bikote indartsua egokitu zitzaigun eta ez genuen uste irabaziko genienik; izan ere, Aixerrotatik hiru bikotek parte hartu genuen eta gure aurkariak beste biak kanporatu zituzten. Espainiako txapelketa, barriz, ikaragarria izan zen, taldeka jokatu genuen, eta bigarren lotu. Kontua da jende guztiak esaten zuela Bartzelonak irabaziko zuela, eta finalerdietan euren aurka jokatu behar izan genuen. Ez genuen uste irabaztea baina, azkenean gailendu eta pasa ginen.

Pabilioia beteta zegoen eta jendea pila bat animatzen: lagunak eta gurasoak etorri ziren, ikurriñakaz animatu gintuzten eta itzela izan zen giroa.
—Zenbatek osatzen duzue taldea?
—Guztira 12 jokalarik gara. Pista modalitatean, umeen mailan, seiko taldeetan jokatzen da; hasibarrietan, aldiz, hirukoitzen. Oraindik aurrera, udan, txapelketa batzuk dauzkagu, pistan zein hondartzan.

«Taldekideek asko laguntzen digute eta gure meritu bera daukate»

—Lotu barik aurrera eta atzera, zelako esperientzia izaten ari da?
—Oso eskertuta gaude entrenatzaileari eta taldekideei: batzuek ez dute asko jokatzen, baina asko laguntzen digute. Ez zaie aitortzen hainbeste meritu, baina beti daude guri laguntzen eta animatzen, eta gure meritu bera daukate. Txikitatik eza gutzen dugu elkar eta lagunak gara. Ez diegu askotan esaten, baina benetan eskertuta gaude. Boleibolera batera apuntatu ginen eta laguntasuna sendotzen laguntzen digu. Gurasoei ere eskerrak emon gura dizkiegu eta irakasleek ere lagundu digute, azterketa egunak aldatuz, e.a.
—Zelan uztartzen dituzue boleibola, bi-daiak eta ikasketak?

—Oraingoz ondo, ikusiko dugu datorren urtean. Astean hiru egunetan entrenatzen gara, eta aste akabuetan partidak.
—Eta zer lortu gura duzue?
—Gure ametsa da Joko Olinpikoetan jokatzeko. Hondartza-boleibol olinpiadetan elkarregaz parte hartu gura genuke. Entrenatzailearen ametsa ere bada. Asko entrenatu beharko dugu horretarako. Gainera, boleibola oso dibertigarria da. o

Info+: www.getxobkt.com

Ttakun hotsa deika Txalaparta-jaia antolatu du UKTEST taldeak ekainaren 28rako, Algortan



Aurreko edizio bateko irudia

Urrunean entzuten da soinua: ttakuntan-ttakun... Jaian parte hartzera dei egiten ditu UKTEST taldeak, izan ere, Txalaparta-jaia egingo du Algortan ekainaren 28an, zapatuan, urtero moduan.
Eguerdiko kalejirak esnaraziko du auzoa, prestatutako ekitaldietan parte hartzera gonbidatuz. Beranduago, txalaparta-zaleek elkarregaz bazkalduko dute, 15:00 aldera (txartelak The Piper’s Irish Pub tabernan eros daitezke).
Sabela beteta, arrastiari aurre egiteko moduan egongo dira, izan ere, ekimen mordoa antolatu dute 18:00etatik aurrera. Hasteko, txalaparta tailer azkarra egin-

go dute San Nikolas plazan, hasibariak edo hasteko gogoz daudenentzat, baita hobetu gura dutenentzat ere. Tailerra 20:00 arte luzatuko da, baina tartean Batukada ibiliko da kalez kale, bere erritmoagaz algortarrak eta bisitariak alaitzen: Getxo Sanba Skull taldeko lagunak osatzen dute Batukada.
Eta gehiago ere badago. Urtero legez, txalaparta bat zozketatuko dute eta, beraz, adi ibili eta erosi zozketa-txartelak bukatu baino lehen! Amaitzeko, egunari amaiera ezin hobea emongo diote Letamia Txou delako ikuskizunagaz, 20:00etan. o

Info+: txalapartauktest@gmail.com

GETXOKO DANTZARI TALDEAK PLAZARA!
Ekainaren 29an hitzordu polita daukate herriko dantza-taldek: Getxoko dantzari taldeak plazara ekimena. Aurtun 50 urte bete ditu Getxoko Itxas-Argia dantza-taldeak eta, urteurren biribila izanagatik, zenbait ekitaldi berezi antolatu dituzte urte osoan, eta azken hau tartean. Iragan maiatzaren 10ean, barriz, ikuskizun ederra egin zuten Andra Mariko kiroldegian: dantzari oihak egungo gazteei batu zitzaizkien taula gainean, bertaratutako ehunka lagunengoz. Esatea urtea amaitu aurretik beste hainbat ekimen burutuko dituztela, adibidez, Euskal Herria dantzaldia, azaroan.

Info+: www.itxas-argia.com

BERTSO-SAIO MUNDIALA UZTAILAREN 9AN
Bertsoetarako ohitura handiko herria da Getxo eta, daborduko, zaleak irrikan egongo dira Bertso Saio Mundialerako eta aurtengo gaia ezagutzeko. Oraingoan abestuko dute Andoni Egaña, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Fredi Paia eta Jone Uriak (ikusten denez, getxoztar bi tartean). Uztailaren 9rako ipini dute hitzordua, ohi legez, Algortako Biotz Alai plazan. Gaueko 22:00etan hasiko da saioa: bertsolariak arduratuko dira kantatzeaz, ALBEko lagunak proba edo erokeriez, eta zaleok berotu beharko dugu giroa...

SAITUA DEUSTOREN KOADROAK ENKANTEAN
Algortako Jone Saitua Deusto artistak bere koadroak enkanteak ipini ditu. Lainoa tabernan ikus daitezke uztail erdialdera arte, eta, baten bat gustuko izanez gero, eskaintza egin: urteera-prezioa 15-20 euro ingurukoa da, baina bakoitzak gura duena eskain dezake eta, erakusketa amaitutakoan, preziorik altuenak eskaini dituztenek lortuko dituzte obrak. Pirograbatutako eta akrilikoak ipini ditu salmentan, eta artistak gurago du norbaitek obra etxean eduki dezan, estudioan gordeta lotzea baino. Zorte on dano!
Info+: www.aldizkaria.biz

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59

(Tellagorri plaza)

48991 ALGORTA

Tf. 94 491 14 12

gusanalibreria@gmail.com

David Movilla Madrid > Leioa futbol-taldeko entrenatzailea

“Leioa inoiz ez da izan herri futbolzalea baina, apurka-apurka, ilusio handia sortzen ari da”

Bigarren B mailara igo da Leioa futbol-taldea eta pozarren daude herriko futbolzaleak. Baina zein izan da arrakastaren gakoa? David Movilla taldeko entrenatzaileari galdetu diogu: romotarra bada ere, urteak dira Leioan bizi dela eta futbol taldean dabilela.

—Lortu duzue mailaz igotzea, zein izan da arrakastaren gakoa?
—Lan handia, iraunkortasun handia, lan horri kalitatea emon, jokalarien nortasun soslaiaiaz asmatu, e.a. Teknikariak lana asko erraztu didate eta zuzendaritzak autonomia utzi digu erabakiak hartzeko.
—Zer suposatzen du mailaz igotzeak?
—Sei urte besterik ez daroagu Hirugarren mailan eta lortu dugu kategoriaz igotzea. Leioak Errege Kopa lehenengoz jokatu du, helburua garrantzitsua da, eta gainera, askok desiratzen duen maila batean jokatu dugu. Urtez urte hobetu dugu: lehen urte bietan kategorian mantendu ginen, hurrengo bietan bederatzigarren eta zortzigarren postuetan lotu ginen, eta iaz laugarren eta aurten irabazi; hazkunde progresiboa izan da.
—Zer eskakizun bete behar duzue Bigarren B kategorian jokatzeko?
—Gauza asko egin behar dugu: oraintsu




Movilla Sarriena futbol-zelaian

hauteskundeak izan ditugu eta lur hartzen gabiltza: ni neu kontratua barritzeko prozesuan murgilduta nago... Bestalde, zelai-ko edukieraren eta segurtasunaren gaiak dauzkagu, jokalarien lizentzia profesionalen gixtieneko kopuru bat eskatuko digute, e.a. Baldintza asko dago.
—Leioa ez da oso futbol-zalea; orain gehiago animatuko dira zelaira?
—Bai, kluba handitu heinean, beraren gaineko eragina eta oihartzuna ere handi-

tuz doaz. Leioara etorri nintzenean, duela zortzi urte, oroitzen dut harmailan 37 ikusle besterik ez zegoela. Gaur egun, barritz, 1.200 lagun inguru etorri da gu ikusterera eta animatzera. Peña bat sortu dute eta partidaz partida jarraitzen gaituzte. Beste herri batzuetan futbol-taldeek daukaten errotzerik ez daukagu Leioan, inoiz ez delako izan herri futbolzalea; baina, apurka-apurka, ilusio handia sortzen ari da eta jendea engantxatuz doa. ○

Dantza galak Kultur Leioan

Andoni Aresti dantza-eskolaren ikasturte amaierako **galak** ekainak **26, 27 eta 28an**



Andoni Aresti bere eskolan (Ituriondo kalea, 10)

Dantzaren bitartez adieraz daitezke emozioak eta sentimenduak, eta irudimena, sorkuntza eta komunikazio-gaitasuna gara daitezke. Gainera, ezinbestekoa da gorputz-koordinazioa, oreka eta musikal-tasunaren hautematea hobetzeko; bizkortasuna, malgutasuna, indarra eta trebetasuna emoten du, garapen fisiko zuzen eta orekatua lortzeko.
Horixe lantzen dute Andoni Arestiren dantza-eskolan eta ikasleek aurten ikasitakoa erakutsiko dute hainbat emanalditan. Dantzari ospetsuaren eskolak hainbat gala antolatzen ditu urtero Kultur Leioan, ikasturte amaiera dela-eta. Aurten ekainaren 26, 27 eta 28an izango dira, 20:30-etik aurrera, Auditorium aretoan. Galak

ikusteko sarrerak salgai daude, 6 euroan. *Dantzaria* izenburua ipini diote emanaldi-sortari, eta Andoni Arestik berak eta Maria Martinek gidatuko dute.
Aresti nazioartean aintzatestutako dantzaria eta aktorea da, eta orain dela urte batzuk sorterrira itzuli zen eskola zabaltzeko. Askotariko dantza-estiloak lantzen ditu bertan, irakasle-talde mardularen laguntzagaz: koreografia eta teknikaz gainera, klasikoko maila danak, flamenko, htip-hop, funky, jazz, klake, dantza garaikidea, euskal folk, erromeria, e.a. Gozamena izango da aurten uztia ikustea, izan ere, “*dantzatzea izatea da, bihotzak sentitzen duena interpretatzen ikastea*”. ○
Info+: www.arestilandantza.com

DAMAGE, POP-ROCK LEHIAKETAKO ONENA
Zaragozako Damage musika taldeak irabazi du Leioako XIV. Pop Rock Lehiaketa, Aterpe Leioa Gaztegunetik jakinarazi dutenez. Kategoría bi daude lehiaketa honetan: metal eta pop-rock. Zaragozako taldeak metal kategorian ere irabazi du eta, pop-rock mailan, Atxondoko Kilauea taldeak. Gainera, beste sari bi emon dute, ohi legeez: euskarazko abestirik onena izan da *Egin bedi zure nahia*, Elbereth gipuzkoar taldearena; eta Leioako Udala saria, The Hooks taldeak irabazi du. Ekainaren 14an jokatu zen finala.
Info+: gazte@leioa.net

ARTE TAILERRETAKO LAN-ERAKUSKETA
Arte eta artisautza tailerretako iragan ikasturteko emaitza erakusten dabil Kultur Leioako erakustaretoan. Ekainaren 29ra arte ikus daiteke ikasleen lanen bilduma zabala, hainbat diziplinakoak: pintura (olioa, akrilikoa, akuarela, pastela), zeramika, zaharbarritzea, zur-lanketa, argazkilaritza, kontaketa, ebaketa eta jantzigintza, e.a. Bisita-ordutegia izango da: astelehenetik barikura, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; zapatuan, 17:00etatik 20:00etara; eta domekan, 12:00etatik 14:00etara.
Info+: www.kulturleioa.com

TORRESOLOKO IGERILEKUAK ZABALIK
Azkenean heldu da uda eta beroa, igerilekuez gozatu ahal izateko. Horrela, Torresoloko kanpoko igerilekuak zabaltu dituzte, irailera arte. Sakonetako bazkideek, aurten, txartel bera erabili ahaliko dute kiroldegi bietan. Gainera, padel eta tenis zelaia Internetez eskatu ahaliko dituzte, baita Sakonetako gainontzeko alokairu-zerbitzuak ere. Azkenik, uneanean *on-line* kontsultatu ahaliko dute igerilekuetan zenbat jende dagoen, hurbildu edo ez erabakitzeko.
Info+: www.leioakiroldegia.net



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86





Luberri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
TF.: 94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberri@euskalnet.net
www.luberri.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Iker Eraso Collado > KNS kirol-zentroko kidea

“Irailera arte egingo ditugu paddel surf eta abentura ekintzak, erandioztar guztientzat”

Uda honetan aisia eta abentura jarduerak praktika daitezke Altzagan eta Astrabuduan, eta Paddel surf ere egiteko aukera dago aste akabuetan. KNS kirol-zentroak antolatzen ditu udalaren laguntzagaz, eta doakoak dira. Iker Eraso Colladok azaldu digu jardueri buruzko gauza gehiago.

—Aisia eta abentura ekintzak antolatzen dituzue, Erandion zer praktika daiteke?

—Ekintza mota asko antolatzen dugu, denetarik: batzuk ur-ekintzak dira eta besteak lehorrekoak. Ur-ekintzen artean eskaintzen dugu, besteak beste: paddel surf, winsurf, piragua, snorkel edota kay-surf. Lehorreko jardueren artean, barriz, multiabentura eta aisialdi ekintzak antolatzen ditugu: jaietarako, urtebetetzetarako, jardunaldietarako, e.a. Horien artean daude, adibidez: tirolina, puzgarriak, ohe elastikoak, rappel-jaitsierak, eskalada edota tibetar zubiak.

—Erandion zer eskaintzen duzue?

—Udalak kontratatu ditu ekintzak eta irailera arte egingo ditugu paddel surf eta abentura jarduerak. Paddel surf itsasadarrean egiten da eta Altzagako ontziraletatik urteten gara. Abentura ekintzak, barriz, Astrabuduan eta Altzagan dira. Irail akabura arte izango dira: abuztukoetan



Info+: www.centrodeportivokns.com

izan ezik, beste aste akabu guztietan.

—Paddel surf itsasadarrean egiten da?

—Hori da, zapatuetan eta domeketan, 16:00etatik 20:00etara, 9 urtetik gorakoentzat. Irailaren erdira arte izango da. Erandioztar guztiek parte har dezakete eta ekintza guztiak doakoak dira.

—Jendea zelan erantzuten ari da, ondo?

—Jendea asko animatzen da. Aurtengoa laugarren urtea da baina, iaz, egunean 60 bat lagunek parte hartzen zuten ekintzetan. Erantzun oso ona izaten dugu beti.

—Paddel surf modan dago azken aldian, nabaritzen duzue?

—Bai, bai, oso modan dago. Duela lau urte, hasi ginenean, ez zen kirol oso eza-guna. Orain, barriz, ezagutzen hasi dira eta jendea praktikatzera animatzen da. Ezkondu aurreko agurretan egiten du askok, zeharkaldiak egiten dira eta umeak lan egiten duten elkarteak ere animatzen ari dira. Kirol oso erraza da eta bost minututan ikasten da. Alternatiba polita da eta joko handia emoten du. ○

Martiartuko jauna herri-antzerkia estreinatuko dute ekainaren 27an, Altzagako azoka zaharrean



Info+: www.erandio.net

Herri-antzerkia prestatu du Difusa kultur elkarteak Martiartuko dorreari buruz, eta ekainaren 27an eta 28an taularaturiko dute Altzagako azoka zaharrean.

Komedia hau Martiartu dorre inguruan izandako bandoen arteko gerretan oinarritzen da (dorrea monumentu historikoa da): “*Fikzioa da, eta XIII. eta XIV. mendeetan kokatzen da, oinaztarren eta ganboarren arteko liskarren garaian*”, esan zuen Jesus Ibarra Difusako kideak UK-ri eskainitako elkarrizketa batean (248. zenbakian irakur dezakezu). Bizkai osoko partaideak ditu taldeak, baina lan honetarako, erandioztarrak ere inplikatu dituzte,

eta gidoia elkarteko kideek sortu dute. Lan handia izan dute, baina ordaina merzitarakoa izango da: antezteak berak emongo dien asetasuna, hain zuzen ere. Prozesua oso interesgarria ziurtatu dute, eta primeran pasa dutela. Gainera, euren sortu eta zuzendu dute dena: arropa, agertokiko apaingarriak, e.a.

Lan horretarako ez dute izan profesionalen laguntzarik, artisau-lana izan da dena, eta emaitza hil akabuan ikusi ahal da: emanaldiak 19:30ean hasiko dira eta 2 euro ordaindu behar da sartzea (Astrabuduko kultur etxean eta udaletxeko Kultur sailean eros daitezke sarrerak). ○

KUKULARRAKO JAIK EKAIN AKABUAN

Heldu dira Kukularrako jaiak, ekainaren 27tik 29ra ospatuko dira. Aste akabu osorako ekintzak antolatu dituzte: igel-toka, sardina-jana, umeentzako parkea, paella-lehiaketa, Moto GP lasterketa, musika bandaren kontzertua, tortilla-lehiaketa, baserriko kirolak, e.a. Gainera, erromeria egongo da barikuan Sukar taldeagaz eta zapatu arrastian Ganso antzerkia ikus ahal da. Bestalde, uztailaren jaiak ospatuko dituzte, bai Asuan, bai Goierrin: San Cristobal jaiak dira azken horiek. Ondo pasa eta gitxi gasta!

Info+: www.erandio.net

MOTOR-TOPAKETA ASTRABUDUAN

VII. Motor-topaketa antolatu du Astrabu Club Moterok ekainaren 28rako, zapaturako. Izen-emotea 12:30ean izango da (oparia izango dute lehenen 300ek), umeentzako III. Motoplastic Sari Nagusia 13:00etan, poteoa 17:00etan, motor-ibilaldia herrian 18:30ean, eta parrila-jana eta motor-jokoak 20:00etan. Gainera, akrobazia-ikuskizuna egingo du Stuntman Emilio Zamorak. Amaitzeko, musika eta sari-banaketa izango dira.

Info+: [facebook-en](https://www.facebook.com/erandio.net)

ARGAZKI-MARATOIA ERANDION 28AN

Herrian zehar argazki maratokia egingo du Radio Club Takolos taldeak ekainaren 28an. Goizeko 11:30ean hasiko da: Etxegorri, Madaripe, Txakurzulo eta Etxegorrira buelta. Horren ostean, fotopoteoa egingo dute Mendibaiarte abesbatzaren laguntzagaz. Bazkalostean, barriz, foto&kultura ekimena izango da Erandio trenez ezagutzeko. Gauerako kontzertua antolatu dute Josu Murueta plazan, 21:00etan. Taula gainera igoko dira 4 Tragos, Ultimo Enemigo eta Bajo Axpe taldeak. erreserbak egiteko: 615 764 891 eta rctdx@hotmail.com.

Info+: takolos.org



COMERCIAL
de LIMPIEZA
VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Lan osogarria
- Elikagai Industriak higienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea.
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea.



Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo) Tf. 94 470 06 69 Fax.94 443 78 81 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

GARAIZAR BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tf-944305243/ 607952977-6 regaraizar@gmail.com
www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA



BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. **102.6** Mhz

www.bizkaiairrátia.com

Ekitaldi batzuk

- **Ekainak 26, eguna:**
 - Kuadrilla-jaitsiera (txosnak; 19:30)
 - Txupina (udaletxea; 20:30)
 - Melmak + Estricalla (txosnak; 23:00)
- **Ekainak 27, barikua:**
 - Umeentzako ametsetako gunea (Zipiriñe; egunero, 11:00etatik)
 - Tortilla eta sangria lehiaketak (txosnak; 13:00)
 - Kuadrillen jolasak (udaletxea; 17:00)
 - Tai-chi, kung fu eta kick-boxing (udaletxeko berdegunea; 18:00)
 - Erdizka lauetan (Jauregizar; 19:00)
 - Bilbainadak (Eleizalde; 20:30)
 - Pilota-partidak (pilotalekua; 22:00)
 - Suzko zezena (udaletxea; 22:00)
 - Makulu ken + Akatz (udaletxea; 23:00)
 - Dingos&Flamingos + Mc Onak (txosnak; 23:00)
- **Ekainak 28, zapatua:**
 - Pala-partidak (pilotalekua; 13:00)
 - Falcons de Vilafranca (udaletxea; 13:30)
 - Herri-bazkaria (Jauregizar; 14:00)
 - Briska-txapelketa (udaletxea; 17:00)
 - Jolasak gazteentzat (udaletxea; 17:00)
 - Mariatxiak (Eleizalde; 20:30)
 - Last fear deal + DJ Rumanik (udaletxea; 23:00)
 - Odi + Urrats (txosnak; 23:00)
 - Su artifizialak (00:00)
- **Ekainak 29, domeka:**
 - Bakailao-txapelketa (udaletxea; 10:00)
 - Sopel-trivial (txosnak; 19:00)
 - Bertso-saioa (txosnak; 20:00)
 - Abarrots (udaletxea; 21:00)
 - Trikiak (txosnak; 22:00)

Sanpedroetan topera!

Udari **ondo etorria** emongo **diote** Sopelako **jaiek** ekainaren **26tik 29ra**



Info+: www.sopelaudala.org

Irrikan gaude uda betean sartzeko eta herriko jaietan murgiltzeko; horretarako aukera izango dugu San Pedro jaiakaz, ekainaren 26tik 29ra.

Pregoa herriko ikastetxeetako ordezkariak irakurriko dute, bariku arrastian: Ander Deuna ikastola, Zipiriñe eskola, IES Sopelana BHI eta Cepakoek. Txupina jaurti eta lehertuko da jaia!

Sanpedroetako gune nagusiak izango dira udaletxe ingurua, txosnak, plazak eta herriko kaleak; azken horietatik kalejira ugari egingo dira egunero; batukadak, mariatxiak, euskal dantzak, Katalu-

niako giza irudiak, e.a. Gainera, ekitaldi bereziak ere prestatu dituzte, adibidez: bariku gauean, jaietako bideo-proiektzioa egingo dute udaletxeko plazan; eta zapa-tuan, elizako kanpaiak jo eta bolanderak jaurtiko dituzte, ohitura zaharrak berreskuratuz.

Umeek ere primeran pasako dute jai-otan, izan ere, egitarau oparoa prestatu dute eurentzat Zipiriñe eskolan: taile-rrak, jolasak, antzerkiak, puzgarriak, bit-za, ur-jolasak, erromeriak, e.a. Nagusi-entzako, barriz, kontzertuak izango dira gauero. Huts egingo duzu? ○

Aitor Balgañon Esnal > parte-hartzearen gaineko prozesua
“Herritarrak ez dira asko inplikatzeko udal-
arazoetan, baina ez da axolagabekeria”



Prozesuko bileretako bat

Herritarren parte-hartzearen diagnosti-
koa egin da Sopelan. Udalak eskatuta, EHUko Parte Hartuz taldeak koordina-
tu du, eta *Partaidetza eta Komunitate-
Garapena* masterreko ikasleek gauzatu
dute. Aitor Balgañon Esnalek azaldu diz-
kigu prozesuaren nondik norakoak.

—**Zelako prozesua izan da?**

—Udalak prozesu parte-hartzaileak abia-
tu ditu eta horri buruz ikuspegi neutroa
lortu gura zuen, horregatik jo zuten gu-
gana. Herrira eta arazora hurbildu eta
proposamena osatu genuen: diagnostiko
multi-dimentsionala egitea; elkarteen
egoera aztertu, herritarren iritziak jaso,
udalak abiatu espazioak aztertu, e.a.

—**Zein ondorio nagusi ateratu duzue?**

—Sumatu dugu herritarrek pasibotzat
daukatela beren burua, ez direla asko in-
plikatzeko udalean egon litezkeen intere-
sen edo arazoaren aurrean; eurek esan dute
horrela. Baina ez da axolagabekeria, ho-
rretarako arrazoiak badaude: parte har-

tzeko ohitura ez dago oso garatuta inon,
eta Sopela beste herrien modukoa da zen-
tzu horretan; ohitura falta dago. Beste
arazorik ere agertu da: gai sakonei lotuta-
ko prozesuak ez dira oso erakargarriak he-
rritarrentzat. Informazioagaz ere, udalak
ahalegina egiten du herritarren informa-
tzeko, baina jendea, edo ez zaio heltzen,
edo esaten du entzun gura ez duenak ez
duela entzuten; gai hori sarritan agertu
da. Halere, herritarrek oso barneratuta
daukate parte-hartze prozesuetatik atera

**«Parte hartzeko ohitura
ez dago oso garatuta inon,
ohitura falta dago»**

diren ekimenak; balorazio positiboa egi-
ten dute. Elkartean ere ateratu da arazoa:
lan positiboa egiten dutela, baina ez dute-
la sarea sortzen, eta garrantzitsua litzate-
keela. Jendeak asko baloratzen du uda-
laren ahalegina gai honi buruz, funtsez-
koa deritzote, baina zailtasunak badaude-
la diote, eta gainditu behar direla. ○



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

DIDAK hamilton IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA

Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



**OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

OIARBIDE DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaia, baldak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoiarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, 48993 GETXO



**Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!**

Bentabax 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA



**zure
publizitatea
hemen!**

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

BIGARREN ESKUKO AZOKA ELIZAREN ONDOAN

Ekainaren 29an, domeka, Berangoko elizaren ondoko landak bigarren eskuko merkatua hartuko du, hirugarren urtez. Bertan, aurrez izena eman dutenek bigarren eskuko artikulua saltzeko aukera izango dute. Horregaz batera, ezin izango da janaririk, edaririk ezta animaliarik saldu. Ordutegia goizeko 11:00etatik 15:00etara izango da.

HAINBAT DANTZA-MOTA IKASTEKO AUKERA

Datorren ikasturtean ere Udal Dantza Eskola hartuko du Berango Merana eskola publikoak. Horretan izena eman gura dutenek uztailaren 31ra arte izango dute aukera, udaletxean edota kultur etxeetan. Hiru dantza mota egongo dira aukeran: dantza kreatiboa (4 eta 7 urte bitartekoentzat), dantza klasikoa (8 urtetik gorakoentzat eta nagusientzat) eta dantza garaikidea (16 urtetik gorakoentzat). Klaseak Ana Rosa Tercerok eta Veronica Van Horenbekek emango dituzte. Prezioa 24 eurokoa izango da hilerio Berangon erroldatutakoentzat.

Info+: danzacdart.wordpress.com

INDUSTRIA GUNEA BERRANTOLATZEN

Udala industrialdea birmoldatzeko eman beharreko pausoak ematen dabil. Horretarako, proiektuak martxan ipini ahal izateko beharrezko izapide administratiboei argi berdea emon die.



UKnatura
LITEX PORTUGALSTE
ESCOLA SUPERIOR DE NÁUTICA PORTUGALSTE
MARIA DIAS DE HARA, 68
48960 PORTUGALSTE (GIZKALIA)

2013-2014 KURTSOA

- *BIOERAKUNTZA tailerrak
- *ARTISAU XABOIAK eta kosmetikak
- *BIOERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
- *ENERGIA BERRIZABARRIAK
- *HEGAZI KAYAK

eta askoz gehiago...

www.uknatura.org

692705471 / 646742241

Etxebizitza duinak Indian Udalak 30.000 euro emango dizkio Vicente Ferrer Fundazioari proiektuarekin hasteko



Zerbitzu minimoak dituzten 21 etxebizitza eraikiko dituzte Indian

Berangoko Udalak Vicente Ferrer Fundazioagaz hitzarmena barritz du. Hala, 30.000 euro emango dizkio hiru urtetan Indiako Chinnacheruvu Tanda herri komunitatean 21 etxebizitza eraikitzeko. Horiek osasungarritasun egoera minimoak izango dituzte, eta euriteei eta bero handiari aurre egiteko babesleku aproposa izango dira. Emandako diru hori udalak ekintza solidarioetara bideratutako aurrekontuen %0,7an sartuta dago.

Berangoren aportazioa Indiako inguru zigortuenetako batera bideratuko

dute, eta “*dalits*” izeneko talde tribal zein kasta behartsuei zuzenduta egongo da. Izan ere, pertsona horiek egoera oso prekarioan bizi dira; kasta gorenetatik aparteko kolonietan, zerbitzu minimoak ere ez dituzten etxebizitzetan. Hori dela-eta, uriola sasoiotan, etxebizitzek ezbehar ugari jasaten dituzte. “*Etxebizitza duin batean bizitzea ezinbestekoa da garapen pertsonala eta komunitarioa lortzeko*”, azaldu du Xabier Orduak, Euskadiko Vicente Ferrer Fundazioaren delegatuak, “*horrek bizitzaren kalitatea nabarmen hobetzea ekarriko du*”. ○

Elortzako langileria > 5. edukiontzia promozionatzen “Ikasleak ingurugiroaren errespetu-an hezi nahi izan ditugu”



Ekainaren 5ean jaso zuten saria eskolan bertan egindako jai batean

Urdulizko Elortza Eskola Publikoak AMEI-WAECE Haurren Hezitzaileen Munduko Erakundeak banatzen dituen sarietako bat jaso du 5. edukiontzia promozionatzeko egindako bideoagatik. Hori aurrera eramateko, eskolako neska-mutil denek parte hartu dute. Eskolako langilea den Isabel Patxekogaz jardun dugu sariaren nondik norakoak jakiteko.

—“*Ingurugiroa zaintzen dugu*” saria irabazi berri duzue, zertan datza?

—Irabazi asmorik gabeko erakunde batek antolatzen duen eta estatu mailan egiten den lehiaketa da. Horretan, estatuko edozein eskolak parte har dezake. Gaiak ingurugiroarekin lotuta egon behar du, eta aurkez daitezkeen lanak hainbat motatakoak izan daitezke, hala nola, muralak, antzerkiak eta bideoak. Guk aurrean iragarki bat egitea erabaki genuen.

—Eskolako ikasleak beraiek izan dira protagonistak, zelan hartu dute horiek lorpen hori?

—Oso pozik egon dira lortutako emaitzarekin. Egia esan, asko disfrutatu dute prozesu osoan.

—**Zelakoa izan da bideoa?**

—Lehenik eta behin aipatu beharra dago Udalak 5. edukiontziaren publizitatea egiteko proposamena egin zigula. Hasiera batean, triptikoaren diseinua egiteko esan ziguten, baina horrez gain, eskolan bideo

«Eskolako neska-mutil guztiek parte hartu dute iragarkia egiteko»

bat prestatzea pentsatu genuen. Gaia ingurugiroa zenez, eta haurrak horretan hezi nahi genituen, erabaki genuen iragarkia eskolako proiektu bihurtzea. Horretarako, eskola osoak parte hartu du, eta hondakin materialekin lan egin dugu *atrezkoak* egiteko.

—**Zein izan da zuen helburua?**

—Gure helburua umeak ingurugiroaren errespetuan hezte eta ezarri berri den 5. edukiontzian zeintzuk produktu sar daitezkeen azaltzea izan da. ○

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina
ALGORTIA
94 430 76 96



zure publizitatea hemen !

944 911 337 - publiuk@aldizkaria.biz



zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia - fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779

EGUNKARIAK prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

EUSKARAREN ERABILERA
SUSTATZEKO EKIMENAK

Uztailaren 5era arte luzatuko du Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdu-lizeko haurrek eta gurasoek elkarregaz euska-raz jolasteko programa. Interesatuak hainbat aukera izango dituzte gozatzeko, barbarako:, disko arima eroa, bideojoko-tailerra, jolasak, akelarre jaiak eta puzgarrien parkea.

Info+: www.uribekosta.org

UDAN ERE KIROL-
JARDUERAK GORLIZEN

Gorlizko auzokideek udan ere kirolaz gozatzeko aukera izango dute. Udalak hainbat ikastaro antolatu ditu: tenisa, gym-jazz, yoga, areto-dantza, gimnasia hondartzan, pilatesa eta ariketa hipopresiboak. Eskaintza guztiak uztail eta abuztu bitartekoak izango dira. Horietakoren batean parte hartu gura dutenek, ekainaren 27ra arte izango dute izena emoteko epea. Prezioa ikastaroaren arabera izango da, eta Gorlizen erroldatuta daudenek deskontua izango dute.

Info+: www.gorliz.eu

DISEINU ETA ARTISAUTZA
AZOKA PLENTZIAN

Udako hilabeteetako lehenengo domekek diseinu eta artisautza azoka hartuko dute Plentzian: uztailaren 6an Eleiza plazan, eta abuztuaren 3an Ontziola plazan.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Uribe Kosta

Gazteei zuzendutako programa berezia jarri dute **martxan eskualdean**



Bizkaiko Foru Aldundiak eta eskualdeko udalek hitzartu dute proiektua

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Barrika, Berango, Getxo, Gorliz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizko udalek gazteriarren arloko politika integrala eza- rri, sustatu eta garatzeko *“Gaztedi Uribe Kosta”* hitzarmena sinatu dute. Aipatu e- kimena *“Gaztedi Bizkaia”* proiektuaren barruan kokatzen da, emantzipazioa eta autonomia, gizarte-eraikuntza eta lurral- de aktiboa sustatzea helburu estrategiko- tzat proposatzen duena. Maitane Leizao- la Bizkaiko Foru Aldundiko Gazteria eta Kirol Zuzendariak jakinarazi duenez, *“Uribe Kosta aurrera eramango diren jarduerak Bizkaiko proiektuaren helburu estrategikoeekin eta proiektuekin lerrokatu- rik egongo dira. Gainera, hitzarmen hau sinatzeak egonkortasuna eta etorkizun ikuspegia ekarriko du, hala nola, egiteko era koordinatua eta errealitateari itsatsita dagoena”*.

“Gaztedi Uribe Kosta” proiektuak ur- te honetarako aurreikusitako egitaraua

batzen duen eskuliburua argitaratu du: *UK Gaztea*. Antolatutako lehenengo eki- mena elikagaien manipulatzailari bu- ruzko ikastaroa izan zen, 16 eta 29 urte bitartekoei zuzendutakoa, eta maiatzean egin zuten Sopelan. Udan, barriz, hain- bat udalerritako jaietan *“droga testinga”*

«Gazteen emantzipazioa eta autonomia sustatzea du helburu proiektuak, besteak beste»

programa abiatuko dute, kontsumoaren neurritasuna eta arriskua murriztea hel- burutzat izango duena. Irailetik aurrera, ostera, bideo-sormen, lehen sorospen, ingeles, jendaurrean hitz egiteko eta lan- esparruan norbere burua saltzen ikasteko tailerrak egingo dituzte. Horregaz batera, jarduerak dirauten bitartean, laguntza, bitartekaritza eta inklusio-zerbitzua egongo da. ○

Info+: www.gaztebizz.com

Eka. 23 - Uzt. 9

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ANTZERKIA

LEIOA

► **Andoni Aresti dantza-eskolaren galak.** Ekainaren 26, 27 eta 28, 20:30ean. Kultur Leioan. 6 euro.

GETXO

► **¿Que hay de nuevo?** Ekainak 26, 20:30ean. Algortako Biotz Alai plazan. 20 euro.
► **A destiempo.** Ekainak 28, 19:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 3 euro.
► **Cabaret.** Ekainaren 25ean eta 26an. Utopianen. 3 euro.
► **En lo mas crudo del invierno.** Ekainaren 27tik 29ra, 20:00etan. Utopianen. 7 euro.

ERANDIO

► **El señor de Martiartu.** Ekainaren 27an eta 28an, 19:30ean. Altzagako azoka zaharrean. 2 euro.

MUSIKA

GETXO

► **Verdi gala.** Ekainak 27, 20:00etan. Algortako Biotz Alai plazan. 5 euro.
► **Daniel Merino eta Los Jeremiaas Johnson.** Ekainak 27, 21:00etan. Areetako Andres Isasi musika- eskolan. 10 euro.
► **Txalaparta jaia.** Ekainak 28, egun osoan. San Nikolas plazan eta herrian.
► **Bertso Saio Mundiala.** Uztailak 9, 22:00etan. Algortako Biotz Alai plazan.

PLENTZIA

► **Kantujira.** Ekainak 27, 20:30ean. Eleiza enparantzatik hasita.

GORLIZ

► **The Wizards + Rizoma.** Ekainak 28. Xurru tabernan. Doan.

Info+: www.getxo.net

► **Musika**
Getxoko Nazioarteko Jazzaldia, Algortan
Getxoko XXXVII. Nazioarteko Jazzaldia, uztailaren 2tik 6ra, Algortan. Biotz Alai plazan izango dira kontzertu nagusiak eta Geltokia plazan Hirugarren Milurtekoa atalekoak, azken horiek doan. Taula nagusira igoko dira Massimax Project, Natalia Dicenta, Liya Grigorian Trio, Jack DeJohnette Trio, Lukas Gabric Group, Hiromi The Trio Project, Ylatic Algo Quintet, Michel Camilo Trio eta Diego El Cigala. Eurakaz batera joko dute talde-lehiaketako finalistek. Hirugarren Milurtekoa atalean, barriz, Juan Ortiz Quartet (Euskal Herria), David Pastor & Nu-Roots (Valentzia), ¡Zas! Trio, Artur Tuznik Trok (Danimarka) eta The Groove Investigators Quintet taldeek (Asturias) joko dute.

• **Non:** Biotz Alai eta Geltokia plazetan • **Noiz:** Uztailaren 2tik 6ra

► **Aratz.** Ekainak 29, 19:00etan. San Pedro Plazan. Doan.

ZINEMA

GORLIZ

► **Filma eta palomitak.** Ekainaren 27tik 29ra, 17:30etik 21:30era. Gaztelekuan. Doan.
► **Akelarren jaia (Euskaraz olgetan).** Ekainak 28, 12:00etan. Ibarreta plazan.

BERANGO

► **Tres bodas de mas.** Ekainak 28, 19:00etan. Berango Antzokian. Doan.
► **Los cinco y el misterio de la joya escondida.** Ekainak 29, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

GETXO

► **Gaurik laburrena.** Uztailaren 7an eta 8an, 21:00etan. Algortako Biotz Alai plazan. Doan.

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Patchwork taldearen lanak.** Ekainaren 27ra arte. Goñi Portalen. Doan.

GETXO

► **Uribe Kosta elkarteko lagunen obrak.** Ekainaren 29ra arte. Algortako Torrene aretoan.
► **Balajihoty hostelak Anekalen.** Ekainaren 28ra arte. Algortako kultur exean.
► **Jazz for two.** Uztailaren 20ra arte. Algortako Satistegi tabernan.

BESTEAK

PLENTZIA

► **Puzgarriak (Euskaraz olgetan).** Ekainak 26, 17:30etik 19:30era. Ontziola plazan. Doan.
► **Open Rubik lehiaketa.** Ekainaren 28an eta 29an, 10:00etan. Goñi Portalen. Doan.
► **Diseinu eta artisautza azoka.** Uztailak 6, egun osoan. Eleiza enparantzan.
► **Tokiko historia jardunaldiak.** Uztailaren 8an eta 9an, 19:00etan. Goñi Portalen.

ERANDIO

► **Abentura ekintzak.** Ekainak 28, 11:00etan. Irailaren 23a plazan.
► **Argazki-maratoia.** Ekainak 28, egun osoan. Astrabuduan.
► **Motor-topaketa.** Ekainak 28, egun osoan. Astrabuduan.
► **Paddel surf.** Ekainaren 28an eta 29an, 16:00etatik 20:00etara. Altzagako ontziralekuan.

GETXO

► **Letren terrazak.** Uztailaren 1etik abuztuaren 29ra.



[albuma]



Ezkontza sasoi...

Udabarria ezkontzarako sasoi dela eta, hitzordu berezia izan zen Algortan ekainaren 6an: Portu Zaharreko Sineroaren eta Andra Mariaren arteko ezkontza. Asmoa zen jendearen artean eztabaida aktibatzea, *“guztion artean zein Getxo mota gura dugun pentsatzeko”*. Ez zuten hutsik egin Getxoko auzo desberdinetako gonbidatuek, familia bietako kideek zein Sirenoaren bahitzaileek; adiskidetu eta ederto pasa zuten.

Argazkiak: **Asier Mentxaka eta Kepa Ugarte**





Behinola

Gortz

Ihes egizu momentu batez, zoaz...
Marteko eremu zabala duzu aurrez
aurre...

Inurri Errepublikako langile-auzo
batean zaude...

1938ko urriaren 30ean O. Welles
hark albistegi forma emandako
irriti-nobela egia bihurtu da berton
2014ko ekainean: estralurtarrak
Gortzko hondartzan, Euskal
Herrian, lurreratu dira...

Zatoz orain, itzul zaitez...

2014ko ekaina da. Aurtengo
afrontuek harea piloa lapurtu diote
lurrari, itsasoari emoteko... Irudiko
hondar edo harea-txondorrak,
handi-handi horiek (alderatu
argazkiko gizakiaren neurriagaz),
kamioetan ekarri dituzte, udarako
hondartza ondo atonduta egon
dadin...

Joan eta etorri... Aurrera eta atzera...
Denbora-mugak izan litezke
errealitatea eta fikzioa bana
ditzaketen harea mugikorrak...

ASIER MENTXAKA

[berbetan]

Aspaldi Bergan (Katalunia) bizi den Nuria Picas i Albetsek (Manresa, Katalunia, 1976) irabazi du oraintsu eskualdean antolatzen duten Kosta Trail lasterketa. Ogibidez, suhiltzailea da Picas (orain eszedentzian dago). Punta-puntako maratoilaria, mendi-lasterketetako korrikolari profesionala, Iron woman-a... Ultra trail deritzen lasterketa luze eta gogorrak egiten, eta irabazten, iaioa. Tarte honetan ez daukagu lekurik bere garaikurrak eta lorpenak zerrendatzeko beste; oster, ziurrenik, berarentzat garrantzitsuena: istripu latza gainditu eta, gaur egun, kirol honetako goi-mailan jardutea izan daiteke. Korrika egitea gogoko badu ere, eskalatzea biziki maite du.

Nuria Picas

Gainditzetik bizi!

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkiak: **Jordi Saragossa**

—IX. Kosta Trail txapelketa irabazi barri duzu, bejondeizula!

—Oso-oso ondo irten zen! Egia esateko, harrituta utzi ninduen nire gorputzaren erantzunak! Probak berak ustekabeen harrapatu ninduen! Ez zelako goi-mendiko proba, ni horietara ohituago nago, eta halere oso gogoko izan dut, horrek harritu ninduen: ibilbidea asko gustatu zitzaidan; ordura arte ez nuen inoiz hondartzan korrikarik egin, hau izan da lehenengo aldia, eta oso gustura ibili nintzen; asko gustatu zait proba! Eukalipto artean... Gainera, espero baino hobeto sentitu nintzen: elektriko sentitu nintzen, eta halakoetan, ia beti, horrek eragiten dit zera bat... besteekiko distantzia lortzeko. Hainbat ultra trailetatik nator, baina gorputzaldi onarekin egon nintzen Kosta Trailean, indartsu sentitu nintzen; agian

horregatik gozatu nuen hainbeste! Eta amaieran, oso pozik! Zur eta lur lehenengo heldu nintzelako! Han-hemengo hamaika lasterketatan parte har dut, gogor eta latz jardun dut aurten, 80 km-ko trail batetik heldu berria... Eta Kosta

“Gorpultzaldi onarekin egon nintzen, elektriko! Ibilbidea polita: lehenengoz hondartzan korrika, eukalipto artean...”

Trailean izandako erritmo onak harritu ninduen, benetan... Gehiago ezin eskatu! 400 korrikalari inguru bildu ginen, eta dirudienez proba hau, urtez urte, erreferentziazko lasterketa bihurtzen ari da euskal lurretan; antolakuntza dela eta, ibilbidea, jendea... Beno, Euskal Herriaz ari garela, betiko moduan!

—“Bizitza bat” berbaldia eskaini zenuen Sopelan, Kosta Trail probaren bezperan. Zure ibilaldiaren hastapenetatik abiatu zinen...

—Txiki-txiki nintzenean hasi nintzen honetan, txikitatik izan dut naturarekiko

eta kirolarekiko pasio hau. Mendialdetik oso hurbil jaio nintzen, niretzat magikoa den Montserrateko mendilerrotik gertu. Gurasoek mendira eroaten ninduten, halako gurasoak izatea niretzat zorte handia izan da: hor egon gura nuelako, eroso sentitzen naizen ingurua delako hori, txikitatik, eta oro har, mendian ha-



zi izan naizelako. Mendi-pasioaz gainera, oro har, kirolzale amorratua naiz; bide bi horietatik mendiko lasterketen aukera sortu zitzaidan, eta gaur egun, horretan dihardut. Nire lehenengo maratokia pasa den mendean izan zen, 1999an! Anetoko maratokia, hirugarren lotu nintzen. Orduan, Kataluniako selekzioak arreta ipini zuen nigan, baina gaztetxoegia nintzela eta apur bat itxaroteko esan zidaten. Ostera, handik lau hilera Montserratren eskalatzan nenbilela istripu larria izan nuen, ezkerreko hanka goitik behera apurtu zitzaidan... Horrenbestez, jardun horretako nire balizko etorkizun oparoa, eta horretan nuen ilusioa ere, bertan behera geratu ziren. Medikuen aurreikuspenen arabera, litekeena zen aurrerantzean ezingo nuela inoiz korrika egin. Zoritxarreko istripu hartatik 15 urte joan dira, denborak bere bidea egin du: oraindik min hori sentitzen dut, baina irmotasunez, lehiati, setatsu, temati izateagatik, egunero apur bat gehiago jasanez... hor goian egotea lortu dut; Munduko kopa bat irabaztea niretzat gogobetetze itzela da! Bitarteko ibiladi horretan bitxikeria eta bizipen piloa dago...

—**Eta zelan eta noiz hartu zenuen (mendi)korrikalaritza lanbidetzat?**

—Bada niretzat oso data esanguratsu bat: 2011ko urriaren 1a. Izan ere, egun horretan lehenengoz parte hartu nuen ultra trail lasterketa batean: Cavalls de Venteko ultra traila, hain zuzen ere. Lankide batek animatu ninduen parte hartzera, behintzat amaitzen ahalegintzeko... Ez nuen neure burua gai eta indartsu sentitzen momentu hartan, ez egun bakarrean 80 eta piku kilometro betetzea eskatzen zuen proba hartarako, erokeria iruditzen zitzaidan! Hala ere, azken orduan eman nuen izena; egin kontu, azken zenbakia izan zen nirea: 777 zenbakia! Baina, 7a da nire zenbaki gogokoena, eta zorte handia eman zidan... Eta zapatu hartan irteeratik abiatu, lasterketa amaitu, irabazi eta errekorra ondu nuen! Eta egun hartatik

esan daiteke jende askorentzat ezagunedo egin nintzela... Gaur egun, 14 ultra trail daroatzat, 11 irabazita eta bigarren postuan lotuta gainontzekoak. Horrenbestez, niretzat hau bizitzeko modu bat da, bai!

—**Berbaldian zure lasterketarik gogoko-enak ere aipatzen dituzu, berbarako?**

—Parte hartu dudan lasterketarik gogo-

“Istriputik 15 urte joan dira; min hori sentitzen dut oraindik, baina setatsu, egunero... hor goian egotea lortu dut!”

koenak hauek dira niretzat: Transvulcania, Zegama-Aizkorri, Cavalls de Vent noski, Mont-Blanckeko ultra traila, Fujiko ultra traila, Transgrancanaria, Kima (Italia), Everest Race traila, Templiers e.a. Azken hori ere oso berezia da niretzat, han irabazi nuelako nire lehenengoko Munduko kopa. Horrez gainera, entrenamenduez, elikadura zelan zaintzen dudana eta darabildan materialaz ere hitz egiten dut.

—**Zegama-Aizkorri aipatuta, bi biderrez lotu zara bigarren, emoten du txapela ezin bururatu zabiltzala, ezta?**

—Lasterketa oso berezia da, leku berezian gordetzen dut. Bigarren postu bi dira, baina, benetan, lehenengoaren lako zaporea dute niretzat! Gogoan dut parte hartu nuen lehenengo aldia, seigarren edo geratu nintzen... Helmugara heldu nintzene-

“Sentsazio edo aieruen arabera korrika egiten dudala uste dut; ez daroat inoiz pultsometrorik ez halakorik ere!”

rako lehenengo hiru emakumezkoei sariak banatzen zebiltzan, podiumerantz, hara gora, begiratu eta akorduan dut pentsatu nuela: *“arraioa! Hor egotea ametsa da!”*. Eta hurrengo urtean berriro ahalegindu eta bigarren lotu nintzen, podiumera igo nintzen, eta han egotea... itzela! Eta ondorengo urtean historia errepikatu

bazen ere, antzekoa sentitu nuen: poztasun handia! Oso zaila da irabaztea... Gainera, nik ultratan jardun ohi dut orain sarri, eta lasterketa hauek laburragoak direnez bada... momentuan txinparta hori eskatzen dute. Hala ere, datorren urtean berriro ahaleginduko naiz! Bestalde, aitortu behar dut, Euskal Herrira etortzea oso-oso gogoko dudala, etxean bezain on-

do sentitzen naiz; zuen herriko giroa itzela da... Aukera dudana bakoitzean, zalan-tza barik, joateko aprobeztatzen dut!

—**Jardun honetan, emakumezkoek zer egoera bizi duzue?**

—Ona, esango nuke. Nire kasuan behintzat ez daukat arazorik edo gain-oztoporik. Oso pozik nago. Gainera, gero eta neska gehiago ikusten ditut mendian korrika, eta gero sarri bizkarrean zenbakia janzten dutela... Korrakalarien arteko giroa ikaragarri ona da, adiskidetasun handia dugu bata bestearekin... Beno, gero, lehian gaudenean beste kontu bat da, denok irabazi nahi dugu! (Kar, kar) Nire ustez, lagunartekotasun handia dago; esker oneko kirola da... Asetzen nau. Horrek ere kirol hau dena baino handiago egiten duelako.

—**Mendi-lasterketetan hasibarriei zer esango zenieke? Zuk zeuk egoera latzak gainditu dituzulako eta minduta lehietzea zer den badakizulako...**

—Euren buruengan sinesteko esango nieke; edozer gauza lor dezaketela! Horretan lan eginez gero, eta batez ere, ilusioa izanda. Dutenetik onena ematea, eta goza de-

zatela! Berdin dio emaitzak, garrantzitsuena bidea da, aurrera egitea, egunerokotasunean, ilusioa... Esperientzia hau bizitzea merezi du, frogatu izana da garrantzitsuena...

—**Beraz, lortu duzuna lortzeko, zelan zaintzen eta prestatzen duzu zeure burua? Zeintzuk dira pausoak?**

—Ultra trailak egiteko, egia esan, ez dago sekreturik: orduak eta orduak ematea entrenatzen! Astean sei egunez entrenatzen naiz, 15 ordu inguru astero; askotan bizikletan ere ibiltzen naiz, errepideko bizikleta eta train running-a txandakatzen ditut, kirolez aldatzea oso gogoko dudalako... Halaber, zirkulazioa zaintzeko ere bizikleta egitea ondo datorkit. Eta esperientzia oso garrantzitsua da, urte askoan mendian korrika jardun izana lagungarri da: sentsazio, pertzepzio edo aieruek askotan lagundu izan didate, horien arabera korrika egiten dudala uste dut... Ez daroat inoiz pultsometrorik ezta halakorik ere! Gozatzer a noa, eta gorputzak esaten didana entzuten dut. Askotan gehiago ez delako hobeto; batzuetan, gorputzari entzun, eta beharrezko edo eskatzen duen atsedena dia eman behar zaio.

—**Eta elikadurari dagokionez?**

—Hemen dieta mediterranea daukagu, zortedun gara! Ez genuke jan-edanarekin itsutu behar, denetarik jan behar dugu: fruta, barazkiak, Katalunian hain ohikoa den ogia tomatearekin eta oliba-olioarekin e.a. Ni ez naiz begetarianoa; orain hain modan badago ere... Okela gustuko dut, arraina ere bai... Garagardoen maitale ere banaiz, horrenbestez... Badakizue, “neurrian hartu”, noski! Baina, denetarik jan-edan behar dela uste dut.

—**Baduzu betetzeko erronkaren bat? Eta ametsik?**

—Mont-Blanckeko ultra traila irabazi nahiko nuke, baina badakit oso zaila dela. Halere, benetako erronka egunerokotasunean zoriontsu izatea da, ez bakarrik irabaztea; neure buruarekin lasai eta gus-



tura egotea oso garrantzitsua da, gogoko duzun hori egitea, familia zaindu, ondo entrenatu, mendian ibili eta horrekin gozatu... Gero, emaitzak etorriko dira... Edozelan ere, lasterketaren bat aukeratu beharko banu, egia esan, atara nahiko nituzke ditudan hiru arantzak: Zegamako, Transvulcania eta Mont-Blanckeko ultra traila.

—**Lasterketan guztiz kontzentratuta zabiltzate, ala paisaiatz eta inguruaz gozatzeko aukera baliatzen duzue?**

—Kar, kar. Argi eta garbi, korrika noala

kin entrenamenduetan, gelditzeko eta begiratzeko aukera dudalako... Lasterketan non zapaldu, begiak lurrean josita nabil... ez jausteko!

—**Bestalde, lasterketez gainera, eskalatzan istripu latz hori izan arren, maite duzu maite eskalatzea.**

—Bai! Askotan adierazi dut gainera gustukoago dudala eskalatzea, korrika egitea baino! Alabaina, bizitzak ultra trailak egiteroan nau, mendi-lasterketen esparrura; eta aprobetxatu behar! Baina, eskalatzea eta alpinismoa biziki maite ditut!

“Askotan diot gustukoago dudala eskalatzea, korrika egitea baino! Baina bizitzak ultra trailak egitera eroan nau”

oso kontzentratuta egon behar dut, begiratzu oina non ipintzen dudana, kontu handiz, erraz jaus zaitezkelako... Hala ere, lasterketa luzeetan, nik egiten ditudan ultra eta halakoetan, batzuek 24 ordu iraun dezaketanak, bada horietan bai, arreta jartzen duzu paisaian. Ostera, egia esan, gehiago gozatzen dut kontu horie-



Añanako gatz-harana

Arabaraino eroango gaituzte Victoria Bengoaren argazkiak: gatzaga edo gatz-meatzeak dituzte protagonista, horietan gatz ura lurrunduz lortzen da. Iturburu, kanal, putzu, larrain eta biltegiz beteta dago harana. Paisaia liluragarri-bereziak txundituta uzten gaitu; horri begira gazgileen beharra eta izerdia lausotuko bazaigu ere, badakigu euren ogibideak, erabilitako egiturek eta inguruak berak aldaketa andana izan dituztela denboran zehar... Gesaltza Añana Arabako kontzejua da, Añana udalerriko herriburua; Gesaltza Añanako gatz-iturburuaren barri jasotzen duten lehenengo dokumentuak 822 urte ingurukoak dira.

Argazkiak: **Victoria Bengoa**








Mandañuko (Gorliz) historiaurreko aztarnategia

Barrikan zegoen silexak bizileku oparo bihurtu zuen Uribe Kosta

Uribe Kostak historiaurreko ondare oso aberatsa du. Ugariak dira aire zabalean aurkitutako aztarnategiak. Barrikako Kurtzio inguruko amildegetako flysch-ean kalitatezko eta hartzeko erraza den silexa dago, eta horrek harri industria sortu zuen orain dela 5.000 urte baino gehiago.

Historiaurreko gizakiaren jarduna bizia izan da Abrako kostaldetik Butroe ibaia- ren bokaleraino. Horren adibide garbia da Harpea Kultur Elkarteko arkeologoek 2007an arakatu zuten Gorlizko Mandañu muinoko aztarnategia. Diego Garate talde horretako arkeologoak jakinarazi duenez, “duela 50 urte Barandiaran egon zen ingu- ru honetan ikerketak egiten, eta hainbat aztarnategi aurkitu zituen. Hori dela-eta, bere ibilbideari jarraituz, aztarnategiak be-



Silexez egindako tresnak

rriro ikustera joan ginen eta Mandañukoa aurkitu genuen”. Gune horretan lur orota- riko ibilgailuak ibili ohi dira; horregatik, lurra “apur bat nahastuta eta belarrik gabe”

aurkitu zuten aztarnategia. “Horrelako kasuetan errazagoa da materialak ikustea eta aurkitzea”, azaldu du Garatek.

Uribe Kostan historiaurreko 30 bat aztarnategi aurkitu dituzte

Gauzak horrela, arkeologoek azken Neolito-Kalkolito garaian koka litezkeen 237 piezaz osatutako harri-industria multzo bat aurkitu zuten. Garatek azaldu legez, pieza gehienak silexez egindakoak dira, izan ere, silexa ugaria da Barrika aldean, “Euskal Herrian soilik Barrikan, Trebiñun eta Urbanan aurki daiteke mate- rial hori”. Bere ustetan, egunerokotasune- rako beharrezkoak ziren tresnak egiteko industria sortu zen eskualdean, ondoren



Historiaurreko aztarnategi ugari ditugu eskualdean

beste leku batzuetakoakaz trukatzeko. Izan ere, arkeologoak jakinarazi duen mo- duan, “Bizkaiko aztarnategietan eta koba- zuloetan aurkitu den silexa Barrikakoa da, Diman, Galdamesen eta Gorbeian, esate baterako”.

Garai horietan, Uribe Kostan bizi zire- nak artzainak eta nekazariak ziren, eta ha-

la erakusten dute Gorlizko Mandañun aurkitutako harri-tresnek: gezi puntak ehizatze-ko, lurra lantzeko erremintak eta eskuz haziak ehotzeko errota modukoak.

Silex-bila

Uribe Kosta eskualdeko historiaurreko ondarea oso aberatsa da. Silexa lehengai

garrantzitsua zen garai horietan, eta oso ugaria zen Barrikako Kurtzio inguruan. Horren ondorioz, eskualdea bizileku oparo bilakatu zen, eta horren adibideak dira Leioatik Gorlizera bitartean aurkitu diren aztarnategiak.

Barandiaranek arkeologia-ikerketak abiatu zituen inguru horietan 50eko hamarkadan, eta horrez geroztik beste hainbat indusketa-lan egin dira eskualde- an. Lan horiek guztiek eskualdeak duen garrantzi arkeologikoa nabarmendu dute.

Euskal Herrian leku gutxitan aurki zitekeen silexa, Barrikan esaterako

Sopelan Bizkaiko bi aztarnategi zaharre- nak daude: Mendieta eta Moreaga, azaldu du Garatek; eta, horiekaz batera, “beste 30 aztarnategi inguru egongo dira. Horietaz gain, asko azken hamarkadetako eraikuntza-prozesuaren ondorioz desagertu dira, edo ez dira ondo aztertu”. Horietatik guztietatik, bakar batzuetan egin dituzte indusketa-lanak: Kurtzion, Mendieta eta Zabaletxen, hain zuzen ere. Orain, Aranbaltzan hasi dira. ○

Diego Garate Maidagan > Harpea Kultur Elkarteko arkeologoa

“Uribe Kostako historiaurreko ondarea oso aberatsa da, sukarrizko tresna ugari lantzen baitziren”

—Noiz hasi ziren Mandañuko aztarna- tegia industeko lanak?

—2007an hasi genuen miaketa-proiek- tua Uribe Kostan. Bagenekien duela 50 bat urte J.M. Barandiaran egon zela inguru hauetan eta hainbat aztarnategi aurkitu zituela. Horrexegatik joan gara berak hasitako bidera, aztarnategiak berriro ikustera, eta inguruan zer dagoen miatzera. Hala, Gorlizko Mandañu mui- nora joan ginen, eta quad eta motorrak

hor ibiltzen direnez, lurra nahastuta eta belarra kenduta aurkitu genuen. Horren ondorioz, erraza izan da materialak ikus- tea eta aurkitzea. Egun batzuk eman genituen bertan lekua arakatzen, mate- rialak hartzen eta aztertzen.

—Nork abiatu ditu lan horiek?

—Harpea Kultur Elkartek abiatu zuen ikerketa. Dozena erdi arkeologok osa- tzen dugu taldea, eta batzuk hemengoak gara, eskualdekoak. Hemen daukagun

ondare arkeologikoa ikertzeko osatu ge- nuen elkarte- a, eta horren bidez eraman dugu lan hau aurrera.

—Zer aurkitu duzue aztarnategian?

—Aurkitu ditugun material guztiak ha- rri-tresnak dira, silexez egindakoak. Sile- xa harri berezia da, eta ez da leku guztie- tan aurkitzen. Euskal Herrian Barrikan, Trebiñun eta Urbanan baino ezin da aur- kitu material hori. Horrenbestez, hori lortzeko trukea erabiltzen zuten garaiko

gizakiek. Hala, aurkitutako materialak az- tertu ondoren, badakigu gutxi gorabehera duela 5.000 urtekoak direla. Garai hori- etan Uribe Kostan bizi zirenak artzainak eta nekazariak ziren, eta hala erakusten dute aurkitutako materialek, eguneroko- tasunerako behar ziren materialak egiten zituzten, lurra lantzekoak, animaliak ehi- zatzekoak eta haziak ehotzekoa, besteak beste. Horrez gain, harriak lantzeko taile- rrak era aurkitu izan ditugu. Uribe Kostan silex-produkzio garrantzitsua zegoen, eta gero material horiek beste lekuetara bi- daltzen zituzten.

—Uribe Kostan historiaurreko hamaika gune dago...

—Eskualdeko historiaurreko ondarea oso

aberatsa da. Lehengai garrantzitsu bat da- go Barrika inguruan. Hori dela-eta, neurri batean zonaldea bizileku indartsu izatea sustatu zuen honek. Aztarnategi ugari ditugu Leioatik Gorlizerraino, eta gainera, kronologikoki, garai ezberdinetakoak dira. Hala ere, aztarnategi guztiak aire zabalean daude, eta azken hamarkadetako eraikitze- prozesuaren ondorioz, aztarnategi ugari desagertu direla uste dut.

—Orain Barrikan beste aztarnategi bate- an lanak hasi dituzue.

—Bai, Aranbaltzan. Kasu honetan, aztar- nategia hareatza batean aurkitu dugu, dena hobeto estratifikatu da, azalak man- tendu dira eta hori oso garrantzitsua da dena behar duen lekuan dagoela jakiteko.



Kronologikoki, Neanderthalak de- sagertu eta Homo Sapiensak agertu ziren unekoa da aztarnategi hau, horrenbestez, oso interesgarria da gure- tzat, prozesu historiko hori zelakoa izan zen jakiteko. ○



BETIKO

IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

• 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

• Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

• Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

• Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

• Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9

ALGORTA
Tf.94 460 70 84

[zinema]

Laburrak jaun eta jabe

Hitzordu bi: **Plentziako Mikrofilm** jaialdia eta **Getxoko Gaurik Laburrena** ekitaldia



Mikrofilm jaialdiko aurtengo kartela

Film laburrak Uribe Kostan nagusi izango dira uztail hasieran, hitzordu garrantzitsu bi daude-eta: bata, Plentzian, urtez urte indartzen dabilen zinema baltzari begirako Mikrofilm jaialdia; bestea, Getxon, dagoeneko ezaguna den Gaurik Laburrena film laburren maratonia. Plentziako zita uztailaren 4an eta 5ean izango da, Getxoko uztailaren 7an (gaztelarazkoak) eta 8an (euskarazkoak).

III. Mikofilm jaialdiari ondoetorria egiteko, maiatzean Bilboko Kafe Antzokian antolatu zuten aurkezpen festa, zenbait kontzertugaz. Orintsu azaldu dute-nez, aurten lehiaketara aurkeztuko lanen kopurua bikoitza izan da, pasa den urte-

koagaz alderatuta, guztira: 528 film labur; besteak beste, Zipre, AEB, Erresuma Batua, Korea, Mexiko, Zelanda Berria eta Alemaniatic jasotakoak. Horieta-tik 22 lehiatuko dira; *Democracia* (Borja Cobeaga), *Colera* (Aritz Moreno), *Year-book* (iazko Sundance-eko irabazlea) eta *The landing* (iazko Sitges-eko irabazlea) tartean. Gainera, Ajoren bakarrikzeta,

«Plentzian uztailaren 4an eta 5ean; Getxon, uztailaren 7an eta 8an»

Toni Garzon Abaden berbaldia, Mario Jimenez bideo-mappinga, Borja Barrueta eta Irazokiren kontzertuak e.a. izango dira. Apurka, banaka, jaialdiako webgunean ipiniko dute informazioa.

Gaurik Laburrena

Urtero legez Biotz Alai plazan izango da; euskarazkoen emanaldia bigarren egunean da (21:00), eta filmak hauek: *Hotz-anak* (Izabene Oñederra), *Otsoko* (Ander Iriarte), *Katu Kosmikoa* (Unai Unda), *Abaztutako denboraren mapa* (Alberto Gastesi), *Azken balea* (La Pecera), *Barbara* (Andoni Mendizabal), *Irene hondartzara doa* (Pello Varela) eta *Oinaze egoitzak* (Erabaki Produzioak). ○

Info+: www.mikrofilmfestival.com/eu
www.getxo.net

Lekorne, ekainak 27-29

Euskal Herria Zuzenean jaialdiak, ohi den legez, **musika eta gogoeta** egitarauan



Hiru egunotarako sarrerak 55 euro balio du

Oro har, musika jaialdia bada ere, antolatzailerak altu aldarrikatzen duten legez: “besta bai, gogoeta ere bai!”. Hala bada, aurten, Lekornen (Lapurdi), “gogoeta guinea” Garroa gaztelu barruan ipiniko dute, han mintzaldi eta mahai inguruen artean, tailer, musika, erakusketa eta dokumentalak gozatzeko aukera izango da; horien artean, besteak beste: Noam Chomsky filosofoaren analisiak zuzenean entzuteko eta beragaz ideiak trukatzeko skype bidezko konferentzia, eta Kurdistan, Azawad, Katalunia, Kebek, Andaluzia, Eskozia eta Kabilia barnetik ezagutzeko aukerak izango dira

herriotako hizlarien berbaldietan.

Bestalde, besta eta kontzertuak: hilaren 27an, Dub Incorporation, Cabaret Freaks, Zea Mays, Legendary Tigerman, Mexican Institute Of Sound, Andreas Et Nicolas, Nina Coyote y Chico Tornado, eta Zezenaren Taldea; hilaren 28an, Ska-P, Pendulum Dj Set, Bigflo Et Oli, Yaniss Odua, Gatibu, Birth Of Joy, Kashbad, Bonaparte, The Lookers eta Dsf; hilaren 29an, Amadou et Mariam, Shantel, Ruper Ordorika, Esne Beltza, The Inspector Cluzo, The Excitements eta Odei et Cubenx. ○

Info+: ehz-festibala.eu

bilduma > bertoko metala

Herriko Burdina webzineak Euskal Herriko metal taldeei begirako lehiaketa antolatu zuen, ostean bilduma bat osatu eta munda hedatzeko helburuagaz. Lehiaketara 30 talde baino gehiago aurkeztu ziren... Laster plazaratuko dute Basque Metal Country bilduma, eta aurkeztutako taldeen artean goratu dituzte ondoko hauek: Bullets of misery, Elbereth, Extinction, Evil killer, Gabezia, Human, Incursed, Izu nauk, Khous, Kraussk, Kudai, Sffera, Taupada, Tight Leash eta Unbreath. Lana uda partean amaitzea espero dute, eta “bilduma digitalak osatzea” da euren asmoa, sarean eskaintzeko.

Info+: herrikoburdina.net

jaialdia > Bilbao BBK Live

Uztailaren 10ean, 11n eta 12an Kobeta-mendin (Bilbo) egingo den Bilbao BBK Live jaialdian, besteak beste, hurrengoek joko dute: lehengo egunean, Franz Ferdinand, Phoenix, Vetusta Morla, Crystal Fighters, John Newman, White Lies, Hercules & Love Affair, Parquet Courts, The Last Internationale, Allen Stone, Belako, Future Of The Left, Kostrok, Eskean Kristó, e.a.; bigarrenean, The Prodigy, Jack Johnson, Bastille, Foster The People, Conor Oberst, Frank Turner & The Sleeping Souls, Dawes, El Culpicio Ase-sino, Izal, Chet Faker, The 1975, Baio, Sine3, e.a.; azken egunean, The Black Keys, Mgmt, The Lumineers, Band Of Horses, Los Enemigos, Skaters, Dorian, Kuroma, La M.O.D.A., Elliott Brood, The Rebels, Smoke Idols, WLDV eta abar.

Info+: www.bilbaobbklive.com

diskoak

Song book #5
Mattin
Autoekoizpena



Ohi legez, oinarrian kontzeptu bat, bost zenbakia: 5 minutuko 5 “rock” doinu batu eta 5x5= 25 minutuko diskoa osatu du soinu-artista bizkaitarrak. Lanaren 555 ale argitaratu ditu. Australian iaz, 5 musikarik 5 minutuko 5 inprobisazio grabatu zituzten, 5 kanta-izenburutik abiatuta; ostean, Mattin berak emandako 5x5 minutuko kontzertua grabatu eta...

Mugitu
Tximeleta
Autoekoizpena



Bizkaiko plaza taldeak es-treinako lana kaleratu du: hamar kantuk osatua, aurrez grabatutako 4 abesti eta beste 6 kantu barri. Taldearen doinuak bertsolari ezagunen letrek janzen dituzte; barbarako, parte hartu duten bertsolarietako batzuk hauek: Miren Amuriza, Beñat Gaztelumendi, Xabier Silveira, Julio Soto, eta Arkaitz Estiballes.

Pantailak
Ladislao
Bonberenea Ekintzak



Xabier Lekuona (Captain Nemo, Fist Fucking), Josu Errasti (Eskoriatza, Captain Nemo), Joseba Artza (Brigada Criminal, Fist Fucking) eta Iker Artza (Brigada Criminal), Josu Errasti (Eskoriatza, Captain Nemo), Joseba Artza (Brigada Criminal, Fist Fucking) eta Iker Artza (Brigada Criminal) osatutako talde barriaren punk eta HC doinuak kantu barriak diskoan batu dituzte.

REBEL TATTOO



Basagoiti Etorbidea 73, 48991 Algorta
Tf. 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkeztzen baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Itzultzeko laguntza eske


Sans Soleilek **Walter Benjamin** kritikariaren **artikulu antologia bi** euskaratu gura ditu

Txinpartak bilduma du Sans Soleil argitaletxeak euskarazko arte kritikako liburuaren argitalpena bultzatzeko; oro har, artea, zinema, argazkigintza, literatura, filosofia eta abar dira aztertzen dituen gai nagusiak. Irabazi asmo bako argitaletxea izanda, 3.000€ behar dituzte Walter Benjamin filosofo eta literatur kritikari alemaniarraren artikulu-antologia lan bi euskaraz argitaratzeko. Zenbateko hori itzultzaileen lana ordaintzeko eta inprenta eta bidalketa-gastuetara zuzenduko dute. Hala, diru-bilketa kanpaina jarri dute martxan, *crowdfunding*-a; ekarpena (kopuru desberdinak) egiteko aukera Verkami plataformaren webgunean dago.

Bultzatzaileek adierazi dutenez, "*Walter Benjamin XX. mendeko literatura kriti-*

«Ekarpenak (kopuru ezberdinak) ekain amaiera arte egin daitezke»


kari eta filosofo nagusien artean dago; humanitateetako alor ezberdinei egindako ekarpena handia bada ere, eta bere obra aberats bezain zabala den arren, euskal irakurleok ez dugu oraindik funtsezko lan horiek gure hizkuntzan irakurtzeko aukerarik. Beraz, hutsune hori betetzeko lanean ari gara". Lehenengo liburukia literatura-



Walter Benjamin (Berlin, 1892-Portbou, 1940)


ren gaineko ondoko artikuluek osatuko lukete: "Franz Kafka", "On Some Motifs in Baudelaire", "On the Image of Proust" eta "The Task of the Translator"; bigarrena, historia eta filosofiaren inguruko artikulua hauek: "The Work of Art in the Age of Mechanical Reproduction", "Theses on the Philosophy of History", "Critique of Violence", "Little History of Photography" eta "Experience and Poverty". Garazi Arrula Ruiz, Mikel Babiano, Maialen Berasategi, Amaia Dones Mendia, Mikel Igartua, Teresa Pradera, Danele Sarriugarite, Iñaki Segurola eta Gaizko Urturi arduratuko dira euskaratzeaz. ○

liburuak



Borroka kluba
Chuck Palahniuk
Txalaparta

Narrea Zubillagak euskaratu du 1996an arrakasta txikiz kalera-tutako Palahniuk lanak; hori oinarri, D. Fincherren filmak eman zion merezitako ospea. "*Borroka Klubeko aurreneko araua da ez duzula Borroka Klubaz hitz egingo*"; ehunka gizon bilduko dira asteburuko esku hutsez borrokatzeko..."



Apirila
Iñigo Aranbarri
Susaa

Esteban Alberdik lana galdu du, aldentzen ari zaio familia, eta durduzatuta dabil. Gau batean, kaskarrean kolpe handia hartuta, bi mende eta erdiko jautzia: 1766ko apiril-ean Azkoitian ikusten du bere burua: krisia, langabezia, errebolta, errepresioa ardatzak; iragan eta etorkizunear.

[kirola]

Gorka Bizkarguenaga > Mendibike elkarte

"Eskualdeak erakargarritasun handiko eremuak ditu, kostaldean zein barnealdean"



Urteak daroztate Uribe inguruko bideak zaharberritzen

Gorlizko Mendibike elkarte mendian bizikletaz ibiltzeko ibilbideak berreskuratzen hasi da, kirol-ekimenak eta turismo aktiboa bultzatzeko asmoz.

—Mountain bikearen praktika sustatzeaz gainera, Uribe Kostako hainbat ibilbide zaharberritzeari ekin diozue...

—Mendibike elkartearen urteroko lana bideak eraberritzea eta bide berriak bilatzea da. Mendi bizikleta martxa antolatzen dugu, eta ibilbidea diseinatzean urtero berrikuntzak sartzen saiatzen gara. Honen harira, eta ibilbide sare finko bat Uriben ezartzeko asmoz, BTT zentroa antolatzeko bideragarritasuna ikusten gabilta. Honek ibilbide sare finko bat edukitzea bermatuko luke, eta uste dugu hau onuragarria dela kirol-ekimenak eta turismo aktiboa bultzatzeko.

—Zelako lana eskatzen du horrelako ibilbideak eraberritzeak?

—Egia esan ibilbideak eraberritzeak, zentzu orokorrean, lanabesak hartu eta lanean jartzea esan nahi du. Hala ere, badira gune

batzuk non lan konplexuagoak beharrezkoak izan daitezkeen. Adibidez, Butroe ibai parean dagoen ibilbidea ziklagarri bihurtzeko beharrezkoa izango da zorua aldatzea eta hodiak nolabait ekiditea bertan bizikletaz ibili ahal izateko. Badira beste gune batzuk ere zuhaitz-adarrak eta sasiak ekidin behar direnak. Gune horietan zerbait egiteko asmoa dugu, mundu guztia rentzat eskuragarri egon dadin.

«Gune ederrenak eta interesgarrienak landu nahi ditugu»

—Zein ibilbide berreskuratu gura dituzue eskualdean?

—Oraindik ez daukagu ibilbide sarea erabat finkatuta, izan ere honetarako faktore asko hartu behar dira kontuan, hala nola, jabeen oniritzia eta GR-en aprobetxamendua. Hala ere, ideia orokorra gune ederrenak eta turismo aldetik puntu interesgarrienak lantzea da. Momentu honetan eremu horiek identifikatzen eta ibilbideak diseinatzen gabilta. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Eduardo San Andres

Zientzia atala abiatu dugu, Jentilkoba atalagaz txandakatuko dena; hilean behin. Bertan agertuko diren testuak Eduardo San Andres matematika-irakasle sopeloztarrek idatziko ditu; zientziaren eremu luze-zabalean murgilduko gaitu.


Arrautza ala oiloa? (I)

Zer izan zen lehenago, arrautza ala oiloa? Ume orok bere buruari egiten dion galdera da hau, baita heldu gehienok ere, baina, tamalez, helduak ez dira ozenki galdetzeraz ausartzen.

Hala da, oiloa izan baldin bazen lehenago, zein arrautzatatik jaio zen? Eta, aitzitik, arrautza izan baldin bazen lehenago, zein oilok ipini zuen? Jende asko irribarre adeitsua luzatzeraz eta asuntza ixteraz mugatzen da erantzun lehor batez: *“ez dauka erantzunik”*. Hala ere, eta batzuk harritu badaitezke ere, umeen jakinmina mantentzea lortu duten heldu horiek, hau da, zientzialariek, galdera bitxi horri erantzun diezaiokete.

Modu egokian ulertu ahal izateko, teoria ebolutiboa eta genetikari buruz zer edo zer ikasi beharko dugu. Goazen, bada...

Izaki bizidun guztiok zelulaz osatuta gaude, batzuk, animaliak eta landareak hain zuzen, milioika zelulaz osatuta (izaki plurizelularrak), eta beste batzuk, bakterioak, zelula bakar batez osatuta (izaki zelulabakarrak). Edozein kasutan, zelula bakoitzaren barruan, nukleoan tolestuta, informazio genetiko dago. **DNA** izeneko helize bikoitz forma daukan molekula luze bat da, eta bertan, kode kimiko dotore eta liluragarri batean, indibiduo jakin horren ezaugarriak buruzko informazioa pilatuta dago. Katea horren zatitxo bakoitzari **gene** deritzen, eta horrela, gene edo gene-taldetxo bakoitzak ezaugarri fisiko edo psikologiko bat kodifikatzen du. Edukiko dugu, beraz, begi koloreen genea, aldakaren zabalera kodifika-tzen duen genea edo azalaren melanina kantitatea kodifikatzen duena, besteak beste. (Homo



DNA molekula

Sapiensen kasuan adibidez, 20.000 gene inguru daude, eta zehatza izateko, ezaugarri bakoitzean gene bat baino gehiagok parte har dezake).

Zelula bakoitzean DNA kopia bat

Animalia gehienok sexu ugalketa bidez erreproduzitzen gara, hau da, ugaltze zelulak (har gamettoa eta eme gamettoa deritzenak) elkartu behar dira, espermatozoidea eta obulua. Zelula hauek aita eta amaren informazio genetikoak dakarte, hurrenez hurren, eta bi zelula horiek elkartzen direnean aitaren eta amaren gene errekonbinatuak dauzkan zigoto bat osatzen da. Hasierako zelula bakar horretatik abiatuta (obulu ugaldua) enbrioi garapena hasten da, zelula bikoizten hasten da behin eta

berriro mitosi deituriko prozesu batean, eta horrela, zelula kopurua 2, 4, 8, 16 eta abar izango da, erditzearen momentua ailegatu arte. Momentu horretan, jaiobe-

«DNA helize bikoitz forma daukan molekula luze bat da; hor norbanakoaren informazioa»

rria milioika zelulaz osatuta egongo da eta zelula bakoitzaren nukleoan DNA molekularen kopia bat egongo da.

Haatik, enbrioi garapenaren hasierako faseetan, mitosi prozesuan, DNAREN kopia bat sortzerakoan, akatsen bat gerta liteke gene bat kopiatzerakoan... ○

(Jarraipena: UK256. zenbakian)

M^a Carmen Kareaga > euskara eta kultura zinegotzia

“Urdulizko berbakerearen berezitasunak ezagutarazi gura ditugu”

M^a Carmen Kareaga Jorajuria (Donostia, 1960) donostiarra da sortzez, baina orain dela hamarkada bi baino gehiago erabaki zuen Urduliz bere bizilekua izango zela. Aurretik ere politikan murgilduta egon da, baina 2011. urtean ekin zion Urdulizko euskara, kultura, berdintasuna, gizartea eta jai arloak zuzentzeari, udal zinegotzi lanari. Politikan jarduteaz gainera, Elortza eskola publikoan ere egiten du lan.

M^a Carmen Kareaga, Urdulizko zinegotzia

—Zeintzuk dira euskararen ahuleziak, indarguneak eta erronkak Urdulizen?

—Urdulizko euskararen arloan, ahuleziarik nagusien artean familietan transmisio-etena aipatu beharko nuke. Izan ere, garai batean, Urdulizko auzokideek euren etxeetan euskaraz jarduten zuten, eta gaur egun, zoritxarrez, joera hori asko jaitsi da. Azken urteotan herria asko hazi da, eta Urdulizek orain arte bizi izan duen izaera euskalduna mantendu ahal izateko lanean gabilta. Horretarako, euskara-plana onartu dugu eta plan berriaren diseinuan lanean gabilta.

Datozen urteei begira, gure erronka nagusia udalerriko gazteen inplikazioa lortzea da. Izan ere, nahiz eta euskaraz jakin, gazte gehienek gaztelania darabilte. —Hori lortzeko egitasmorik baduzue?

—Aurretik esandako guztia lortzeko, hainbat arlo eta sektore jorratu gura ditugu: umeak, gazteak eta gurasoak, bereziki. Adin tarte horietan eragina izateko, hainbat egitasmo abian jarri ditugu, besteak beste, umeentzako udalekuak, gidabaimena euskaraz ateratzeko programa, Beharsarea eta euskara ikasteko gurasoentzako ikastaroak.

—Eta erabilerari dagokionez, baduzue ekimenik edo proiekturik martxan?

—Urdulizko euskarak berezitasun eta ezaugarri jakin batzuk ditu. Horrenbestez, berezitasun horiek ezagutarazi gura ditugu. Horretarako, udalerriko toponimia eta kale-izen-degi berria batzen dituen liburu argitaratu dugu, baita Benito Otazua idazleak argitaratu duen

“Etxeetan euskara galdu da; familian jarduten zuten, eta orain ez”

ipuin-bilduma ere. Izan ere, Otazuak Andersen idazlearen ipuinak Urdulizko hizkera propiora itzuli zituen.

Horretaz guztiaz gainera, herriko elkarte guztiaz gainera, bertoko neska-mutilak batzeko asmoa daukagu, udalerririk euskara arloan dituen gabeziak eta indarguneak aztertu eta jaso ahal izateko, eta ESEP planean sartzeko. ○

Urduliz

Biztanle kopurua
3.200 biztanle (2006)
3.630 biztanle (2011)

Euskadunak
1.484 euskaldun, %45 (2006)
1.656 euskaldun, %45 (2011)

Ia-euskaldunak
633 ia-euskaldun, %19 (2006)
1061 ia-euskaldun, %29 (2011)

Erabilera datuak
Datu fidagarrienak kale-erabilerari dagozkionak dira:
%15,8 (2006)

Harremanetarako:
94 657 92 76
euskara4@uribekosta.org

Info +:
www.urduliz.net
www.uribekosta.org

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzeko has zaitez.

Café-Bar
Especialistas en
desayunos
abrimos desde las
07:00h.
y 08:00h. los fines de
semana y festivos

Plantzia

C/Iturgibxi, 13
48620 Plentzia
Telf: 94.677.31.28
www.cafebarzuazua.com

ABIAN
HERRIKO TABERNA

PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK

AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ

Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

berezi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

txakoli
mota
gane
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierr-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

GURE
ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA

Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

BODEGUILLA
BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com

fugu
sushi take away & delivery

Bar batean eginda japoniar era tradizionalan
www.fugulasarenas.com

Evaristo Churrua Kalea 2 (lonja) - Bizkaia Zubiko enparantza - Areeta - GETXO
944 808 796
Banaketa-eremua: Getxo eta Leioa

LA LURRI

GOSARIAK
PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

KAI EDER
JATETXEA

Menu ederra itsasoari begira

Tf. 94 677 41 33
Txurrua kalea zenbakirik gabe - PLENTZIA
www.restaurantekaieder.com

portu
zaharra
bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

Zure publia
hemen agertzea
gura baduzu

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxo**tan**]

Pintxoa pil-pil erara

Tradizioari jarraituz egiten dute bakailaoa



Pintxo hau aste akabuetan eta jaiegunetan bakarrik prestatzen dute

Plentziako Iturgitxi kalean kokatuta dagoen Zua Zua tabernako terraza alde batera utzi baino lehen, ezinbestekoa da asteburuetan eta jaiegunetan bertoko sukaldetik ateratzen diren pintxo bereziak dastatzea. Egutero prestatzen diren mokaduez gainera, taberna horrek hainbat pintxo osatu eta berezi egiten ditu bertaratzen diren bezeroentzat. Horien artean, aipagarria iruditu zaigu makailaoa pil-pil erara egindakoa, errezeta tradizionala jarraituz, baina formatu txikian.

Pintxo hau prestatzeko, lehenik eta behin piperrada gozo bat prestatu behar duzu. Horretarako, tipula, piper berdea eta piper gorria ondo zatitu eta sukaldatuko duzu. Behin hori eginda dugula, bakailaoa hartu, xerratan moztu eta, tra-

dizioak agintzen duen modura, pil-pil erara prestatuko duzu, mimo handiz. Platera prestatuta dagoenean, alde batera utzi, eta pintxo muntatzen hasiko gara. Ogi-xerra bat txigortu eta oinarri gisa erabiliko duzu. Horren gainean, piperrada botako duzu eta, azkenik, bakailao-xerra bat hartu eta piperradaren gainean ipini-ko duzu. Azkenik, pil-pil saltsa apur bat guztiaren gainetik botako duzu. Hala, betiko mokadua prest izango duzu, pintxo baten formatuan.

Esan bezala, aipatu pintxo eta horren moduko beste hainbat asteburuetan eta jaiegunetan prestatzen dituzte taberna honetan, 11:30etik aurrera. o

Osagaiak: bakailaoa, tipula, piper berdea, piper gorria, ogi-xerra, olio

uk **zure**
publizitatea
hemen !

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Croissanterie
Brioche

MONTE JAIA 1
48991 Getxo (BIZKAIA)
croissanterie-getxo.blogspot.com

94 460 86 48

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluz z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxarriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

**uk zure
publizitatea
hemen !**

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Amamak ondo gordetako 5.000
pezeta emongo dizkizu, ilusio osoz.
Koadro batean ipini beharko duzu
billetea, bankuak ez ditu-eta
euroengatik trukatu.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Petralduta zabilta egunotan: zer
daukazu? Nogaz haserretu zara? Zure
buruagaz? Hobe da barruak askatzea
eta norbaiti kontatzea arazoa:
entzungo dizun lagun bat hautatu.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Uda bezain alai zara, nabari da sasoi
honetan jaioa zarea, beraz zorionak!
Zelan ospatu erabaki duzu? Prestatu
janari asko, lagun mordoa hurbilduko
da-eta zure eguna ospatzera.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Hazten ari dira balkoian landatu
zenituen tomate landareak eta tomate
txikiak atara dira. Izan pazientzia eta
hazten utzi, zenbat eta handiago eta
gorriago, askoz gozoago dira!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
San Juan suaren bueltan dantzan egitea
gustuko duzu eta egurra biltzen hasi
zara surik handiena egiteko. Kontuz
ibili salto egiterakoan, orkatila
bihurritu gura ez baduzu.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Azerketak amaitu dituzu eta orain
hilabete bi luze opor, zein ondo!
Jairik jai ibili ahalko zara uda osoan,
plisti-plasta uretan eta berbenetan
dantzan. Ateraiozu zukua udari!

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Lagunak zain dituzu eta txangoa prest!
Abentura ederra izango da bidaiatxoak:
bete motxila beharrezko gauzakaz,
loritu kanpin-denda eta lo-zakua, eta ez
ahaztu tortilla-ogitartekoa!

HAZIA




(Urriak 17 azaroak 15)
Irrikan zabilta, azken asteak etxean
sartuta emon dituzulako. Zorioneko
zaude, udako jaietako erromesaldia
hastear dago: *sanjuanak, sanpedroak*, eta
sanferminetara ere hurbilduko zara!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Itsasoko ura fresko dago, baina
berdin dizu: sardinak baino hobeto
moldatzen zara uretan. Gustuko
duzu olatuakaz jolastea, beraz gozatu,
uda osoa daukazu aurretik.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Lanagaz kokoteraino, lagunakaz
haserre... Hartu autobusa eta zoaz
norabait aste akabu honetan, berdin
dio nora. Burua askatzen eta lasaitzen
lagunduko dizu. Animo!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Pilota barria oparitutako dizute eta
pozarren joango zara parkera jolastera,
baina txakur pila bat ibiltzen da
inguruan eta pilota lapurtu gurako
dizute. Tentuz ibili, haginaka egin ez
diezaioaten.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Lagun barriak egingo dituzu uda
honetan, elkarregaz primeran moldatuko
zarete eta toki desberdinak ezagutuko
dituzu eurei esker. Egunkari polita
osatuko duzu bizipen guztiakaz.



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan




Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker-eskuma

1. Itsasbazterreko dorre argiduna, gauetz nahiz egun lainotsuetan marinelen lagungarri dena portura hurbiltzeko. 2. Esku-zarta, esku ahurak elkarren aurka jotzea. Beldur handi. 3. Oiloaren ar. Inbutu. 4. Aranondoaren fruitu. Sartze-ko legez ateratzeko balio dute. 5. Pluralean, argizagi batek beste argizagi baten inguruan egiten duen bidea. lodoaren ikur kimikoa. 6. Lehenengo bokala. Labearen behe aldeko barrunbea. 7. Bustia. Emakumezkoen sexua. 8. Eguneroko jakia. Zurgin da batzuentzat, errementari besteentzat. 9. Infusio mota. Hurrupa. 10. Zokoak, bazterrak.

Goitik behera

1. Arnas ezak hila. Uzta larrainean jo ondorengo lasto. 2. Behartsu, eskale. Mediterraneoko itsasoa. 3. Salatzera behartuak. 4. Burdina-haria. Oxigenoaren ikur kimikoa. 5. Ez du entzuten, gor. Bizkaieraz, iratxea, garoa. Tulioaren ikur kimikoa. 6. Bokal errepikatua. Ate, hitz elkartzeetan. Garai, aldi. 7. Röntgen. Otaloreak, otearen loreak. 8. Ginekologian lan egiten duen mediku. 9. Ipar Euskal Herrian, izua. Beribila, automobila. 10. Jartzeko edo esertzeko altzari. Pluralean, barazki hostotsua.

Soluzioa



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein izen dauka argazkietan oinarritutako testu laburren eskualdeko lehiaketak?

> Aurrekoaren erantzuna: Itziar Sagarminaga Bilbao
> Irabazlea: **Leioako EHUKo campusa**
*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA

Oinutsik
kontsulta podologikoa

Zubigane 4, SOPELANA. Tel: 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net

Erdiko argazkian zer ikusten da?

- **Marteko eremu zabal bat**
- **Inurri-etxe piloa**
- **Hondar edo harea txondorak**

> Aurrekoaren erantzuna: Laida Fuertes Martinez
> Irabazlea: **Plentzia**
*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA

Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma



LUIS MARI BILBAO "TXURINE"-K UTZITAKO ARGAZKIA

BRISKA TXAPELKETA UDONDO TABERNAN, 1989 INGURU

80. hamarkada baino lehenagotik antolatzen zuten briska txapelketa Udondo tabernan; urtero-urtero, orain dela bi urtera arte, mahai bueltan batzen ziren udondarrak eta inguruko andana. Aste barruan jokatzeko partidak, iluntzean hasi eta gauera arte. Hirunaka jokatu ohi zuten... Argazkian, 1989 urtean edo jardun zuten jokalariai dituzue, Ganenen jokatu zen urte hartako finala, eta hauek izan ziren irabazleak: Txomin Beaskoetxea (irudian txapelagaz), Floren Landa eta Javier Baudor. Ostera, den-denek ospatu zuten: alkarregaz bazkaldu zuten-eta, ohirurari eutsiz: indabak! o

- 1go lerroa:** Rafa (?), Jose Luis (?), Jose Luis Chans, Josetxu Yanez, Eugenio Montoya, Jose Manuel Momotio, Jesus Maria Orozco, Jose Luis Alonso eta Javier Baudor.
2. lerroa: Juan Jose Inoriza, Julian Alava, Segundo Zulueta, Juan Marchan, Roman Garcia (GB), Goio Nuñez, Javier Arnaiz, Rafa Gorrizonzarri, Jose Miguel Fresneda eta Jose Luis Alzaga (GB).
3. lerroa: Jose Baudor, Carmelo Perez (GB), Luis Gonzalez, Juan Manuel del Caño, Luis Diez, Carlos Martin, Luis Mari Garcia, Andres Bilbao, Iñaki Inoriza (GB), Felix Aresti, Esteban Sanchez, Jose Maria Mazo, Fermin Bolivar eta Floren Mazon.
4. lerroa: Txomin Beaskoetxea, Jesus Diaz, Jose Luis Aurrekoetxea (GB), Alfredo Bilbao, Victor Fernandez, Pedro de Miguel, Luis Maria Olamendi, Vicente Samaiego, Luis Maria Bilbao, Jose Angel Pereda (GB), Florencio Landa "Panta" eta Cesar Fernandez.

SANDRA BAREA ELORDUI > *El Conquistador del fin del mundo* saioko lehiakidea

“Mougli deitzen didate, nahiko basatia omen naizelako”

Testua: **Iker Rincon** Argazkia: **Asier Mentxaka**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Burugogorra eta alaia.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Kill Bill-en, ostikada eta kolpe mordoa emateko aukera izango nukeelako.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Patagoniara bueltatuko nintzateke, baina beste modu batean.

Zein da zure ametsetako bat?

Irla isolatu batean lan gutxi egitea, lasai bizitzea eta denbora izatea denetarik egiteko.

Eguna ala gaua? Zergatik?

Eguna, eguzkia dagoelako. Horrek ematen dit egun osoari aurre egiteko beharrezkoa dudana energia. Hala ere, oso gautxoria naiz, ederto moldatzen naiz ilargipean.

Baduzu ezizenik? Zer dela-eta?

Mougli. Naturan sentitzen naizelako erosoan, eta gainera beti esan didate oso basatia naizela.

Azken aldian egin duzun erokeriarik handiena?

El Conquis-era joatea.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Meñakoz hondartza eta Kantarepe. Hara joaten naiz sarri lasaitasun bila eta denbora libreaz disfrutatzen, bakarrik zein lagun artean.

Parrandarik politenak non?

Portu Zaharreko jaietan eta Paelletan. Lehenengoan, Euskal Herriko jai gutxik dute horiek duten berezko xarma hori.

Zein galderari ez zenioke inoiz erantzungo?

Galdera honi... kar-kar. o

LABURREAN—*El Conquistador del fin del mundo* lehiaketaren azkeneko edizioan parte hartzeagatik eta finalean borrokatzeagatik ezaguna da Sandra Barea (Algorta, 1987). Saio horretako jarraitzaile amorratua dela aitortu du algortarrak, eta, bere mugak ezagutu nahian, horretan parte hartzea erabaki zuen. “*Bertoko probek asko motibatzen naute, eta behin aukera emanda, ondo aprobetxatu dut*”. Esperientzia gogorra bizi izan duela dio, “*hotz handia pasatu dugu, eta ematen ziguten materiala ez zen oso egokia bizi genituen baldintzetarako*”. Hala ere, oso ondo pasatu duela eta lagun handiak egin dituela aitortu du.

Iraide, neska gaztea, lan egiteko gogotsu eta prest!

Iker, gasolindegian, asteburuetan, lan egiteko pertsona baten bila



Beharsarearen bitartez, Iker Goñik Iraide Herrera langile euskalduna kontratatu berri du Getxoko gasolindegian lan egiteko.

beharsarea.net

Beharsarea Getxon euskaraz egiten den lana eskaini eta eskatzeko tresna sinple eta eraginkorra da. Beharraren adiera biak uztartzen ditu: lana eta alor horretako premiak uztartzeko gunea da Beharsarea.



www.beharsarea.net/Getxo



XXXVIII Getxo

UZTAILA
2-6
JULIO

2014

BIOTZ ALAI PLAZA
ALGORTA - 21.00 h.

2 TALDE LEHIAKETA / CONCURSO DE GRUPOS
MASSIMAX PROJECT

NATALIA DICENTA

3 TALDE LEHIAKETA / CONCURSO DE GRUPOS
LIYA GRIGORYAN TRIO

JACK DeJOHNETTE TRIO

4 TALDE LEHIAKETA / CONCURSO DE GRUPOS
LUKAS GABRIC GROUP

HIROMI: THE TRIO PROJECT

5 TALDE LEHIAKETA / CONCURSO DE GRUPOS
YLATIV ALGO QUINTET

MICHEL CAMILO TRIO

6 TALDE LEHIAKETAREN
IRABAZLEA
GANADOR DEL CONCURSO DE
GRUPOS

DIEGO EL CIGALA



944 914 080
kulturetxea@getxo.net
www.getxo.net


SARRERA SALMENTA
VENTA DE ENTRADAS 944 914 080
Getxoko Kultur Etxea
(Villamonte, 46)

k Sarreraren salmenta:
Venta de entradas:
www.kutxabank.es
Orotarako
kutzazainak
Cajeros
multiservicio

Antolatzaileak / Organizadores



Babesleak / Patrocinadores



Laguntzaileak / Colaboradores

